

GUaiXE.eus



Argazki lehiaketan bozkatzeko azken egunak dira



Kultura >> 13

Altsasuko festak bete-betea. Gatiburen gaurko kontzertuak eta bestelako ekitaldiek jendetza erakarriko dute



Sakanerria >> 2/14-15



Memoria, irakasleak eta Sozarretako lauak gogoan

Altsasun eta Iruñean ekitaldi bana egin zen

>> 6-7



Gurdi Bideak garai bateko ofizioak ekarri ditu gurera. Larunbatean iritsi zen Sakanara, Ziorditik, eta asteartean joan zen, Irurtzundik. Bihar helduko da Pasaiara.

Gurdi pasa

>> 5

Bernoako galtzada gero eta ageriago dago

>> 5

Munduko Arrozak, Altsasun dastatzera

>> 14

Ergoienako bira, bihar. Uharte Arakilgo km bertikala, etzi

>> 9

Telekomunikazio sare egokia eratzeko proiektua, jendaurrera

>> 7



Iortiako zinema sasoia ostegunean hasiko da >> 13



Pilotari onenei txapela jarriko diete Altsasun igandean >> 10

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

Gartzia Ximenez 46
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK/ BECAS

Sakanako Mank: BEKAK

aek euskara praktikoa

100% AFECTIVO

Eman izena Matriculate



ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



irailak

16-22

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Zinema

Ben-Hur. Irailaren 22an, ostegunean, 19.00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Elur-biltegia. Irailaren 18an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 55 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Hilotzak hobitik ateratzen, duintasunak berreskuratzen. Irailaren 18ra arte, astegunetan 10:00etatik 14:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Uharte Arakilgo udaletxean. **Uharte Arakil 80 urtez Memoria** galtzen.

Literatura

Kearen fiordoa. Irailaren 19an, astelehenean, 19:30ean Irurtzungo Iratxo elkartearen. **Iñaki Petxarroman idazlea.** Astelehen Zoriontsuak.

Irakurketa ikasturtea zehazteko bilera. Irailaren 22an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranzako liburutegian.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 16an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranzako plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 18an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



Iñaki Petxarroman idazlea. UTZITAKOA.

Altsasuko festak



Goian 2015eko kintoak, behean festetako lehen Larraindantza.



Festei hasiera eman zien etxajua.



Giro aparta egon zen festen eztandan.



Festetako photocall-a

Festen oroigarri dibertigarria izateko Altsasuko Udalak photocall-a prestatu du. Familiari zuzendutako ekitaldietan egonen da buruhandi batek izutzen duen pertsonen irudia. Haien aurpegiak hutsik daude eta lau altsasuarrek edo bisitariak euren aurpegiak jarri diezaizkete irudiari. Argazkia egin eta festetako oroigarri berezia izanen dute. Gainera, argazkia sare sozialen bidez @Iortia etiketarekin zabaltzen dutenek saria izan dezakete. Izan ere, Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuak irailaren izanen diren zinema emanaldietarako 10 sarrera bikoitz zozketatuko baititu. Zinema sasoa heldu den ostegunean hasiko da.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Igandean, zuzenean
Osasuna - Celta
11:45ean

Gaurko gaiak:

- Gurdi Bideaz Mikel Leozekin
- Agustin Lopez de Zubiriarekin hizketan
- Irurtzun-Arakilgo azokaren aurkezpena

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE


ALEX SARDUI

 Gaur, 19:00etan, Guaixen ON-LINE ELKARRIZKETA
 Egin zure galderak www.guaixe.eus bidez

ezkaatza >>
SAKANA

 >> **Irurtzun / Arakil**

SEEk gobernuari ibarreko premiak azaldu dizkio

Bileran bi aldeek Sakanako Plan Estrategikoa sortzen hasitako aukerak azpimarratu dituzte

Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) Jose Antonio Concha, kudeatzailea, Francisco Lopez de Alda Arrese, lehendakaria, eta Javier Arretxe, aholkularia, Nafarroako Gobernuko ordezkariarekin bildu ziren asteartean. Zehazki, Manu Aierdi ekonomia lehendakari ordearekin eta Izaskun Goñi, Ekonomia eta Enpresa eta Lan Politikako zuzendari nagusiarekin. Elkarrekin Sakanaren egoera aztertu eta etorkizuneko beharrak jorratu zituzten.

Mahai gainean hornikuntza elektrikoa (mikromozketak) eta poligonoen egoera (azpiegiturak eta mantentze-lana) eta Etengabeko Lanbide Prestakuntza izan zituzten. Enpresa-ordezkariak azaldu zutenenez, 1999-2013 epean enpresen %15 desagertu ziren (51), eta 2011 eta 2013 artean, aztertutako %50 baino gehiagok kontabilitateko emaitza negatiboak izan zituzten. Horregatik SEEko kideek Nafarroako Gobernuari jadanik ezarrita dauden enpresak babesten eta enpresak erakartzen jarraitzeko beharra helarazi zioten, Altsasun bereziki.

Aierdik, berri, onartzeko prozesuan dauden planek ibarrean izan diren eraginean erabateko konfiantza duela esan zuten. Bileran bi aldeek Sakanako Plan Estrategikoa balorazio positiboa egin zuten. Lehendakariordeak estrategia horrek Sakanarako eta Nafarroa guztirako duen garrantzia azpimarratu zuten (maila anitzeko gobernantza inklusiboaren eredu, taldekako ekintzailetza sustatzea, enpresen arteko lankidetzaren sareak, proiektu pilotuak); izan ere, ekimen hori beste eskualde batzuetan aplikatu daiteke jarraibide egokien eredu gisa, Lizarraldean gertatzen ari den moduan. Enpresari sakandarrek, bide batez, kontseilariari eskerrak eman zituzten Nafarroako Gobernuarekin lankidetzarako eta komunikaziorako bide bat ezarri izanagatik.

Igandean, 10:00etatik aurrera Irurtzun Arakilen

Irurtzungo eta Arakilgo IV. Bertako Ganadu Azoka igandean izanen da, berreskuratu zenetik duen filosofia berarekin. Aitor Larraza Carrerak, Irurtzungo alkateak, azaldu zuenez, "igandekoa, bertako arrazen, ekoizle-egileen kalitatezko elikagaien eta artisauen lanaren gorazarrean izanen da nagusi Irurtzun Arakilen". Etziko egunaz gozatzera gonbidapena luzatu zuen.

Aurkezpenean Aritz Ganboak, artzaina eta Sakanako ekoizleak biltzen dituen Belardi elkarteak bozeramaileak, azpimarratu zuten erakundeek, nekazari eta abeltzain elkarteek, artisau elkarteek eta herritarrek, "azoka denentzako antolatutako ekimen bat da". Ganboak azaldu zuenez, azokarekin "guri dagokigunez behintzat, nekazariok gure ogibidea jendarteratzea bilatzen dugu. Gure landa eremuaren kudeaketaz ardurartzen diren gure animaliak, bertako arrazak, erakutsi. Eta animalia horien kudeaketaren ondorioz sortzen ditugun elikagaiak jendarteratzeko aukera da".

Ganboak gaineratu zuenez, azoka ardura partekatutako nekazaritza filosofia aldarrikatzeko gunea da. Hau da zuzenean eta ekoizlearen parte hartzean oinarritutako eredu. Azokak bide horretan pausoak ematen jarraitu nahi du. Sektore guztiak elkar lotzeko egiten den ekimena ere badela nabarmendu zuen.

Traktore zaharrak eta beste

Larrazak jakinarazi zuen aurten nekazal lanabes tradizionalen erakusketarekin batera, traktore zaharren erakusketak izanen dela. Amaia eta Lizarra kalean izanen dira ikusgai. Dozena erdi bat traktore zahar ikusgai izanen direla aurreratu zuen. Larrazak gaineratu zuenez, azokarekin batera, "gazteenek gure tradizioei loturiko joko eta jolasak ezagutzeko aukera izanen dute propio presta-



Ezkerretik eskubira: Iker Manterola (Sakanako Garapen Agentzia), Eduardo Brun (Brun forja), Aritz Ganboa (Belardi), Aitor Larraza (Irurtzungo alkatea), Gustavo Ortiz de Barroso (Plazaola turismo partzuergoa), Migel Angel Laplana (Arakilgo zinegotzia) eta Eduardo Murugarren (Irurtzungo zinegotzia).

tutako gunean".

Azoka girotzeko trikitilarien eta gaitarien musika, joaldunaketa mitologia-pertsonaiak, kale animazioa, talogileak, forja artisau erakustaldia, haurrendako estanzazio tailerra, maskarak egiteko

tailerra, soka lantze tradizionala, eta beste ere izanen zirela aurreratu zuen. Irurtzun, Arakil, Sakanana eta Plazaolako informazio eta

turismo puntuak ez du hutsik egiten. Ezta Irurtzungo eta Arakilgo merkataritza eta ostalaritzaren erakustoki desberdinek ezta ere.

Atzera begira

Irurtzun Arakil ibarreko eta inguruko herrien merkatal gunea da, aspalditik. Urteetan Irurtzungo abere azokak gertuko eta urrutiko abeltzain eta merkataria erakarri ditu. Hasieran hilean behingo azoka zen. 1792 eta 1921 urteen artean hamabostean behin egin zen. Hamarrean behin egitera pasa zen orduan, 1921-1945. Azkenik, astean behin egiten zen, aste-artero. Orain dela 40 urte erabat galdu arte.

Non-zer

Frontoi irekian, abereen gunea, latxa ardiarpeltz eta mutur gorriak (Aslana), Nafarroako rasa ardi (Arana) eta sasi-ardia (Sasiko), behi piriniarra (Aspina), nafar kasta eta betizua (Asbena), Auritz arrazako zaldi-behorrak (Ascana) eta Nafarroako jaka (Jacana). Azkenik, euskal oiloak eta antzarak (Eoala elkarte).

Foru Plazan, azoka gardena, Belardiko 10 ekoizle behi esnekiak, barazkiak, karakolak eta ardi latxa esnekiak eramanen dituzte. Horretaz aparte, loreak, arrautzak, ardoa, ezti, ogia eta pastak, txerrikiak, lekaleak eta bes-

telakoak ekoizten dituztenen postuak izanen dira.

Lizarra eta Amaia kaleetan, erakusketak eta artisautza. Erabili (ehuna, Etxarri Aranatz), Zapatarri (oinetakoak, Iruña), Anitha (paper artisautza, Elorrio), Anua-hel (kosmetika, Gasteiz), Esteban Iglesias (modelatua, Trapagaran), Eskuz Holakatua (zura, Sempere), Arnaud Araguas (Zura, Urruña), Y-Poronga (Bitxigintza, Berain), Trok (larrua, Areso), Agustin Agirre (beira, Antsoain) eta Joseba (esku pilotak).

Frontoiaren atzean, tradizioei loturiko baserriko joko eta jolasak.

Empieza por la E

¿Qué es aquello cercano, afectivo, práctico, lleno de valores y beneficios, transmitido en la infancia o adquirido en edad adulta, que provoca complicidades, emociones y sentimientos positivos y cuyo uso genera disfrute y satisfacción facilitando nuestra socialización?

Eeee
eee
...

¡Esta Claro! Argi dago!
euskara!

MATRICULATE

Más de 30 euskaltegis en toda Navarra
30 euskaltegi baino gehiago Nafarroan

Antolatzaileak/Organizan:
Entidades locales con servicio de euskera
Euskara zerbitzua duten toki entitateak



Marian Mendiola

Meistrek eta meistrubek

astekoa

Irailean sartu berri garenez, garaian garaian dagokion asmoberrien zerrendarekin hasiko naizneure, beste askoren modura. Asmoa? Gure bailaran ematen denari erparatu eta bata bestearen atzetik sortzen diren burutazioekin era honetako letra multzoak harilkatzen jarraitzeo intenzioa.

Gauzak horrela, berriki sartu garen hilabete honi hartzen diodan trazaz arituko naiz, hezkuntza usainaz. Ikasturtea hasteare-

kin batera irailaren 8an Alfabetizazioaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, irakurtzen eta idazten ikasteko eta irakasteko eskubidearen mundumailako aldarrikapena. Gurean, euskalduntze-alfabetatzea eta analfabeto digitalaren kontua da kezkatzen gaituena.

Jada irakurtzen eta idazten ez dakien analfabetorik ez dagoela uste badugu ere, oraindik nahi baino gehiago dago: munduko biztanleen %16a. Askotxo, ez? Eta datu horren haritik ezin dugu

ahaztu, laurogei urteurrena ospatzen ari garen honetan, Nafarroan garai horretan zegoen analfabetismo tasa %40-50 ingurukoa zela, neska-emakumeetan handiagoa. Ordungo analfabetismoari aurre egiten askotxo zekiten 1936ko kolpe militarren ondorioz Nafarroan eraildako eta errepresaliatutako maistru-maistrek. Horiek guztiek herritar alfabetuaren aldeko apustua egin zuten eta berriki merezitako errekonozimendua eta justiziazko omenal-

dia jaso dute. Tartean dirasakandar meistrubek eta meistrek.

Dena den, errepresioaren biktima izan ziren irakasle horien hezkuntza-jardunean ez dut uste *El Florido Pensil* antzezlanean eta liburuan azaltzen den irakasteko metodoa eta asmoak zeudenik. Gerra osteko Eskola Nazionala irudikatzen duen antzezlanaren Iortian ikusteko parada izan duzenok jabetuko zineten ikusleen artean bazirela diktadura hura larrutik bizi izandako gizon-ema-

kumeak eta ederki gogoratzen zituztela txikitik ikasitako kantairakasgai-moralizante haiek baten bat kantari ere aritu zen-. Baina eskolan bizitako gogortasun hartaz hitz egiteko premia ere antzeman zen, nahiz eta ikuskizunarekin barre algaraderrak bota.

Horregatik guztiagatik, iraileko beste asmoetako bat botako dut, iraganean zein gaur egunean "irakasten" dabiltzanei esker onak ematea, oporraldi luzeak baldin badituzte ere!

barrutik kanpora

Itzuli dezaket?

Itzuli dezaket? Kontsumitzaileek gehien egiten duten galderetako bat da hau. Inkesta baten arabera, nafarren % 42ak azkeneko urtean erosketaren bat saltzaileari itzuli dio eta itzultze bat egin nahi izan zuten artean, % 9k arazoren bat izan zuen.

Erosi dudako produktu bat beti itzuli dezaket? Ez, kasu hauetan izan ezik:

- Saltokiak berriaz itzultzearen aukera eskaintzen duene-

an (adibidez, publizitatean, establezimenduan kartelen bitartez, erosketatik bertan...). Kasu horietan, kontsumitzaileak saltokiak ezarritako itzultze baldintzak bete beharko ditu, adibidez, itzultzeak epe baten barruan egin edo saltokiko produktu berezi batzuentzako mugapena, kutxa hautsi gabe edota produktua erabili gabe besteak beste.

- Urrutitik egindako erosketetan

–internet edo telefonoaren bidez, adibidez–, edota salmenta kontsumitzailearen etxebizitzan edo lantokian saltzaileak egindako bisita bat baliatuta burutu bada –saltokitik kanpoko salmentak–, nahiz eta kasu horietan ere salbuespenak eta gastu zenbait egon daitezkeen. Kasu hauetan hamalau eguneko epea dago erosketatik atzera egiteko.

Akastuna den produktu bat itzuli dezaket? Bai, egokia ez

den kasuetan, hots, erositako produktua saltzaileak egindako deskribapenarekin bat ez datorrenean, ohizkoa dena erabiltzen denerako egokia ez denean edo ohiko kalitate eta prestazioak ez dituen eskubidea duzu konpon dadin edo egoera onean dagoen batengatik ordezkatzeko.

Araudiak adierazten du kontsumitzailea izango dela aukeratzeko duena, bietako aukera bat "objek-

tiboki ezinezkoa edo neurrik kanpoko" denean ezik. Gehienetan establezimenduek ordezkatzeko aukera gehiegizkoa dela argudiatzen dute konponketa eskaintzeko artikulua berri bat eman ordez. Konponketa edo ordezkapen hau osotara doan izan behar du eta epe zuzen batean burutu beharko da.

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte

objektibo tik



Jakin-mina

Ez-ohiko soinuak. Berria askorendako, aspaldikoa beste makina batendako. Leihoa zabaldu eta garaj batean bezala, idiak eta behiak tiratutako gurdiak pasatzen ikustea... Batzuk ametsetan zeudela pentsatuko zuten. Beste batzuk ez zuten aukera galdu eta telefono mugikorarekin grabatu edota argazkiak egin zituzten. Jantzi eta Gurdi Bidearekin batera paseotxo bat eman zuen izanen zen, ziur.



Guajardo, 20 urte Vueltako speaker

Atzo Altsasun jokatuako afizionatuen lasterketako berriemaile lanetan aritu zen Juan Mari Guajardo, Eneida Carreñorekin batera. Espainiako Vueltako speaker lanetan 20 urte bete dituela aitortu zigan speaker altsasuarrek. Gustura ibili zen herriko proban. Jakina denez, Movistarreko Nairo Quintanek irabazi du Vuelta, Hiriberriko Imanol Erbiti taldeak eta laguntzaile zuela eta Jose Luis Arrieta zuzendari uhartearren aginduetara.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus

ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus

MAKETATZAILA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus

PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILA: Maria Luisa Zelaia

ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800

Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburordetza

ALTSASUKO UDALAK WEB BERRIA: Altsasuko Udalak bere web orria eraberritu du eta asteartean jendaurrean jarri zuen. udalaren arlo guztietako informazio zabalaz

aparte alkateak erantzuten du saila du ere. Herritarrek luzatutako galderak erantzuten ditu Javier Olló Martinezek.

sakanerria >>

SAKANA



Bakaikun lanean. UTZITAKOIA

Ondarea azalera ateratzen

“Pixkanaka galtzada agertzen ari da eta ikustean jendea animatzen ari da”. Nicolas Arbizu Gabirondo iturmendiarraren hitzak dira. Bera eta beste hainbat herritar urtean zehar galtzada azalarazteko auzolanetan parte hartzen ari dira. Gainera, Bernoako galtzadan agorrilean antolatu den nazioarteko auzo-landegian ere parte hartu du atzerriko hainbat gazterekin batera. “Joan den urteko lanari segida eman diogu, beste 200 bat metro agertu ditugu”. Arbizuk esan digunez, Iturmendiren kasuan 500 metro egitea da asmoa, Dospeloserrekalderaino. Azken karlistadan hainbat fusilatu zituzten.

Herriaren ondarea berreskuratze-ko nahi horretan bat egin dute Etxarri Aranatzek, Bakaikuk (Mandubita eta Galtzamakur aldean) eta Urdiainek. Joan den urteko lanari segida eman diote agorriaren 15etik 25era. De Amicitia gobernu kanpoko erakundearen bidez Italiako, Errusiako, Frantziako hiruna gazte eta Alemaniako, Espainiako, Turkiako, Txekiako eta Mexikoko bana etorri ziren auzolander-gira. 17 eta 28 urte arteko 12 neskekin eta 2 mutilekin batera bertako boluntarioak egon dira ere. Iturmendiko parroquia etxean ostata hartu dute (egonaldia udalek pagatzen zuten) eta handik herrietara mugitu dira. Aitzurra eta erratza lagun, garai batean Gipuzkoa eta Sakana lotzen zuten harribidea argira atera dute.

SAKANA

Gurdiak baleontzirantz

Bidebazerretik, haien aldamenen oinez, geldialdietan, etxeko leihotatik... Hainbat modutan jarraitu dute sakandarrek Gurdi Bidea. Burgostik eta Pasaiara bikea eta alkitrana eramaten duten gurdien segizioak sakandarren jakin-mina, harridura eta nostalgia piztu zituen. Batzuek idiek eta behiek gurdi eramaten ikustea berria zelako, besteendako bizitakoak berritzeko aukera izan zen. Baina zeresana eman zuen ere hemen ezezaguna zen abere arrazak. Altuerako menditan egotera ohituta dauden abereak dira eta bero handiekin gehiegi ez sufritzeko etapen irteera aurreratu behar izan zen, 8:00etan beharrean 7:00etan.

Cabaña Real de Carreteros kultur elkarteak hiru uztarriekin sartu ziren Sakanara larunbatean. Igandean beste bat batu zitzaion eta ordutik bina pare behi eta idi ari dira bidea osatzen. Elkarrearen helburua baso eta larre iberikoen balore eta erabilgarritasuna mantendu eta zabaltzea da, kultura eta etnografia esparruetan. Hala, baso eta abeltzain industriaren eta garraio tranhumantearen memoria berreskuratzen eta zabaltzen lan egiten du.

Izena XVI. mendeko erakunde batena dute, garai batean Gaztela eta Kantauri itsasoa ondasunen garraioan lotu zuen mandazaina. Desagertze zorian dauden idi eta behi menditarren aldeko lana garai bateko gurdi bideen berribiltzearekin lotzen dute. Hainbat ibilaldi egin dute gurdiekin eta orain ametsa betetzen ari dira, Gaztela eta itsasoa batzea.

Albaola

Albaola Itsas kultur faktorian egiten ari dira San Juan baleontziaren errepika, Pasaiara. Hara iritsiko da Gurdi Bidea larunbatean. Bidea egiten ari direnen artean

Albaolako Mikel Leoz dago. Hark azaldu zigunez, bidea “oso polita, hunkigarria izaten ari da”. Sakanan Albaola ezaguna izatean, “eta mandazainekin etortzean interesa” sortu zuela adierazi zigun.

Gurdietan eramaten ari diren bikearen eta alkitranaren erabileraz galdetu genion Leoz. “Quintanar de la Sierran pinudiak dituzte. Pinu egurretik, alkitrana ateratzen dute; erretxina alkitrana bihurtzen da. Modu tradizionalean egiten dute. Horrekin kalapetatzen da eta babesten da egurra, XVI. Mendean bezala”. Nolako langintza den azaldu zigun: “bi pieza elkartzen direnean, bien artean alkitran kapa bat jartzen dugu. Ontzia bukatzen ari garenean, oholen arteko tartea betetzeko alkitrana eta kalamua nahastuta sartuko dira. Horrek junta iragazgaitz bat egiten du eta ura ez da sartzen.

Baleontziaren martxa

Eraikuntza martxa “oso ona” duela esan zigun Leozek: “gaur egun iritsi gara bigarren kubiertaren alturaraino. Egitura sendotzen hasi gara, bigarren kubiertarekin hasteko. Lehenengo oso bukatuta daukagu. Ontzia hazten ari da”. Bukatzeko denbora luze gelditzen dela azaldu digu Leozek. Baleontzia bukatzeko aurreikuspenez galdetuta, “gaur egun data finkorik” ez dagoela argitu digu Leozek, gaineratuz: “inork ez dauka inolako konpromisorik. Guk gure buruari 2020 urtea jarri diogu, nahiko data errealista delako. Ordurako itsasontzia bukatuta, aparejatuta, uretara botatzeko bezala izateko”. Garai bateko sokak eta oihalak kalamuz sortzea izanen da beste erronketako bat.



Ziordia eta Olazti arteko martxa.



Lakuntzan harrera beroa jaso zuten.



Irurtzunen jende mordoak hurbildu zen agurra egitera.

Gurdi bideak Sakanan utzitakoen bideoak



Ziordia-Altsasu



Altsasu-Uharte



Uharte-Irurtzun

asi
arreta eta orientazio
psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA
PSIKOTERAPEUTA
Elkargokide-zk.: N-0806

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

LARRAZA
ARDOAK

948 460 014
Zugarreta, 2 • Etxarri Aranatz

Erakundeak, utziz
FLORES S.L.

Nafarroako
betiko txistorra

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

>> Altsasu

Sozarretan 36an eraildako lauak gogoan

Nafarroako Fusilatuen Senitarte-koen Elkarteak, hainbat sakan-darren laguntzaz, 1936an Sozarretako bide bazterrean eraildako lau gizonen omenezko ekitaldia antolatu zuten. Ekitaldiak ehun bat pertsona bildu zuten, haien artean zeuden Etxarri Aranatz, Olatzagutia eta Berriozarko alkateak. Azken herri horretan bizi da Concha Diegez, eraildako haietako baten alaba eta gorpuak lur azpitik ateratzeko borroka nekezina aurrera daramana. Guztiekin eta beste makina bat erakunderekin harremanetan izan da Concha. Horregatik zeuden ekitaldian Camino Mendiluze eta Garazi Urrestarazu Altsasuko alkate ohiak.

Elkartearen izenean Eneko Artetak eskuinak memoria historikoaren kontra duen jarrera salatu zuen. Han presente zen Concha Diegezen moduko senideek 80 urtean "fusilatuen umezurtz izatea, gerran garaitua izatea jasan behar izan dute haurrak zirenetik, zauriak dirau". Hala mina haien senideen hezurak berreskuratzeko soilik senda dezakeela nabarmendu zuen. Diegezen hitzak gogora ekarri zituen: "demokraziaren kontrako horiek, inolako zigorrik jaso gabe, gu iraintzen, mintzen, umiliaztzen gaituzte".

N-1 errepide zaharra, NA-1000, zabaldu eta berritu egin da 1936tik eta haren azpian leudeke Claudio



Pikotxarekin, sinbolikoki, errepidea zulatu zuten. Horrela gorpuen deshobiratzea aldarrikatu zuten.

Doroteo Dieguez Loza etxarriarra eta Eustaquio Bengoetxea Bengoetxea, Hilario Goikoetxea Agirre eta Miguel Mikelez Agirre olaztiarrak. Aranzadi zientzia elkarteak 2010ean georradarra pasa zuen baina ez zuen gorpuen arrastorik opatu. Zezilio Oiarbidek 12 urte zituen eta aldameneko baserri batean bizi zen gorpuak ikusi zituenean. 2015ean harekin joan ziren tokia zehaztu asmoz. Errepidean zabaltze lanak autan egin dira eta horrek erreferentziak galtzea ekarri du. Aranzadi elkarteak hilobia opatzeko zailtasunak nabarmendu dituzte.

Ekitaldia

Camino Mendiluzek azaldu zuenez, "eskuindarrek, UPNkoek, esaten dute guk zauriak berriro zabaldu nahi ditugula. Ez, guk zauriak itxi nahi ditugu! Haien pertsona maitatu guztiak ondo gogoratuak izan dira, eta ondo daude haien lekutan. Guk guztiok gure izaki maitatuek merezi duten lekuan egotea nahi dugu". Gobernari lau hildakoak opatzeko ahalgina egiteko eskatu zuen, "senideek, azkenik, atsedean hartu ahal dezaten".

Ramon Arratibelek, Rayok, azaldu zuenez, "15 urtez erailda

egondako osaba bat, amaren anai bat, izan genuen guk. 1952an, festetan, agertu zen etxean eta sorpresa hartu genuen. Barbaridade izugarriak kontatzen zituen". Hark eskatu zien ez erabiltzeko fusilatu hitza: "guk ez dugu ezer egin, erail gintuzten". Ondoren, ahantzuraren kontrako idatzi bat irakurri zuen. Lau hildakoen omenez Lanzko zortzikoaren doinura flamenkoa dantzatu zuen Diegezen biloba batek. Ohorezko aurrekuaren ondoren, senideek lore eskaintza egin zuen. Haietako batek, Concha Diegezek, Affnako kideekin batera pikotxa har-

Eraildakoak

Claudio Doroteo Dieguez Loza 1904ko lastailaren 30ean jaio zen San Asension (Errioxa). Francisca Jaka Mendiolarekinezkondu zen. Bikotea eta lau seme-alabak Etxarri Aranatz bizi ziren. Bera Miranda de Ebron treneko sugina zen eta makina gidari postura igo zuten. Horregatik, Altsasura lekualdatu behar zuten. CNTko kidea zen. Mirandan atxilotu eta Altsasura eramane zuten. Sozarreta aldean 1936ko irailaren 14an hil zuten. Honakoak leporatu zituzten: 1931n kartelak jartzea, Asturiasko iraultza koen hilketen kontra edota hauteskundeetan emakumezkoen botoaren alde kanpaina egitea.

Eustaquio Bengoetxea Bengoetxea

1912ko irailaren 20an jaio zen Bonifacia eta Teodororen semea. Ezkongabea, nekazaria zen eta EAJko kidea. 24 urte zituela hil zuten, 1936ko irailaren 14an.

Hilario Goikoetxea Agirre Nekazaria, abertzalea, 21 urte zituela erail zuten, 1936ko irailaren 14an.

Miguel Mikelez Agirre 1901eko apirilaren 29an jaio zen, Olatzagutian, Sebastiana eta Beremundoren semea. Ezkongabea, langilea, PSOEko kidea zen. 31 urte zituela hil zuten.

tu eta, sinbolikoki, errepidea zulatzen hasi zen.

**Concha Diegez**

Claudio Doroteoren seme-alabetan hirugarrena da Concha eta larunbatean omenaldian izan zen. Aitak etxera egindako azken bidaian emandako aholkuak gogo-

ratu zituen: "ona izan, inori ez minik egin, zure burua defendatzen ikasi, zaindu ama eta anaiak eta barkatzen ikasi".

Conchak aitaren gorpuaren bila luze darama. Erreketek etxarriaren baten ahotik jakin zuen aitari tiro zeinek joziona eta non, exekuziotik 10 urte pasa ondoren. Erreketek hark jakinarazi zionez, salatzea eta hiltzea lana lortzeko prezioa omen zen. Conchak dioenez, aitari buruz ez zuen gehiago jakin, "hitz egiteko beldurra" zegoelako. Camino Mendiluze Altsasuko alkate zela, Conchak datu gehiago jaso zituen: erail eta gero, egunetara, txakur batzuk gorpuak lurpetik atera zituztela eta inguruetakoa baserri-tarrek berriro lur eman zirela

edota 70ko hamarkadan errepidean zabaltzeko lanak egitean langileek hezurak opatu eta zeuden tokian utzi zituztela.

Etxarri gelditu zen familiari etxea erre zioten, abereak eta garia lapurtu zituzten, txahala eta jasotako gari zaku bakarra errekiatu zieten, semeak atxilotu zituzten, apaizak ama haurrak kentzearekin mehatxatu eta hiru maitale zituela zabaldu zuen, etxetik bota zituzten eta Etxarriko udaletxeko estalopean bizi izan ziren, beste familiabatek euren etxean jaso arte. Etxarri zituzten lurrak merke saldu eta Altsasura lekualdatu ziren. Han lurrak zirenak baino garestiago erosi behar izan zituzten. Extra-perloa izan zuten bizimoduetakoa

bat, baina anaietako bat atxilotu zuten. Conchak berak lagunduzion muga pasatzen.

Ondoren ere markatua segitu zuen. Dantzaldietan baztertua izan zen. Lanean ere, fusilatuen alaba zelako, espedienteak izan zituen. Emakumeak larunbatean nabarmendu zuenez, "urte oso gogorak izan ziren. Umiliazio eta bazterketa handia bizi genituen. Aita kendu ondoren ez dakizu zer den herritik bidaltzea".

Aitaren gorpuaren bilaketa luzean Conchak aitortu zuen beste eraildako senideak topatzeko Olatzagutian eta Ziordian egindako ahalegina gogoratu zuen. Affnako kideek bere bilaketan Conchak opatutako oztipoak salatu

zitzuten. Hala ere, bilaketarekin jarraitzeko gogoia eman dio Nafarroako Gobernuari izandako aldaketak. Elkarteak kideek adierazi zuten, "orain bere esanak kontuan hartzen dituzte".

Osasunak eta urteek "indar gutxi" utzi diotela dio. Hala ere, Conchak: "ez dut etsiko justizia egin eta aitak dagokienez atsedean hartu arte". Conchak gogorarazi zuen duela bost urte hil zenez "ona" izan zela, "zorte hori izan du". Aitor-tu zuenez, dituen hiru semeak eta ilobak dira haren bizipoza. Igandean Etxarriko Gure Ametsa jubilatuta elkartera joaten dela eta disfrutatzen duela gaineratu zuen. Bere bilaketan lagundu dioten guztiei eskerrak eman zituzten.

>> Altsasu

Batzokia, atzera ere, ikurrinik gabe

Batzokiak gauez du ikurrinik. Bakea kalean dagoen EAJren egoitzako masta apurtu eta ikurrina kendu zuten atzo, 20:00ak aldera. Jeltzaleek eraso salatu dute. Batzokiko ikurrinaren kontra jotzen duten lagarren aldia da. Aurrenekoz 2013ko azaroan hasieran lapurtu zuten. Hurrengo lapurreta 2014ko irailean (festetan). Joan den urtean ere irai-



lean gauza bera gertatu zen. Bestalde, ikurrina bat agertu da Zelai eta San Juan kaleen bidegurutzean hutsik zegoen mastan. Besteetan Altsasuko eta Nafarroako banderak daude.

>> Etxarri Aranatz

Gose greba bukatuta, AEMk amnistia eskaerak segitzen du

Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimenduko (AEM) bi kidek, Joxan Kortadi (20 egunez) eta Fernando Lizeaga (26 egunez) preso politikoki ohiak, gose greba egin dute ikastola zaharrean. Azken horrek ostiralean utzi zuen protestaldia. Espetxean gaixo dauden presoan

berehalako askatzea aldarrikatu dute. Haiekin batera, hainbat egunez baraualdia egin dute Izaskun Etxerriak eta Angel Erdoziak. "Borrokaldi gogorra burutu dute, baina ez dute bidea bakartasunean egin", eta Huelvako presoek helburu beragatik egiten ari diren txandakako gose greba edo Valenceko espetxean dauden bi presoek sakabanaketaren eta urrutzearen kontra egiten ari diren protestaldia gogora ekarri ditu. AEMko kideek, "informazio boiko-

taren ginetik", gose grebaren "irakurketa oso positiboa" egin du. Adierazi dutenez, "borroka honek kontzientziak berpizteko eta inposatu nahi diguten "normalizazio eta bake" egoera faltsuaren gezurra agerian uzteko baliagarria izan da". Aldi berean, AEMk "eskerrak eman nahi dizkio Etxarriko herriari eta zori-nak modu batean edo bestean borroka hauek guztiak lagundu dituzten guztiei". Amnistia lortzeko "borroka eta antolakuntza" aldarrikatu ditu.

SAKANA

1936an errepresalia tutako irakasleak omenduta

Nafarroako Gobernuak bere lana betetzeagatik frankismoaren errepresioa jasan zuten irakasleak omendu zituen larunbatean. 1936ko kolpe militarren ondoren, Nafarroan fusilatzea, espetxea, garbiketa, errepresio ekonomikoa edo erbestea pairatu zuten 300 irakasle baino gehiago izan ziren. Haietako 33 erailak izan ziren, tartean Olatzagutian irakasle zen Domingo Bados Garcia. Harekin batera beste 11 sakandar edo ibarrean lan egindako irakasle ezagutu ditugu zerrendan.

Omenaldia Gobernu Memoria Historikoaren arloan egiten ari den jardueren barnean sartzen da eta, zehazki, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasandako biktimen aitortzarekin eta errepresazioarekin lotutakoetan. Uxue Barkos lehendakariak horixe gogorarazi zien omenaldian presente ziren irakasle haien senideei. Barkosek kolpisten errepresioak irakasleengan izan zuen eragin zabala nabarmendu zuen. Iruñeko San Jose plazan egin zen omenaldia, han egon baitzen aurreneko Irakasle Eskola Normala. Oroitzapenezko plaka bat jarri zuten han.



Senideak presente zeudela, Nafarroako Gobernuak 1936an errepresaliatutako irakasleei omenaldia egin zien.

Errepresaliatutako irakasleak*

Errotz

Leoncio Urabaien Guindo. Irakaslea araztua izan zen.

Uharte Arakil

Manuel Garcia Rodriguez irakaslea Fuentejalonen (Zaragoza) jaio zen. Juaquina eta Pascualen semea Amelia de Garroekin ezkondua zegoen eta lau seme-alaba zituen. Estatu kolpearen ondoren preso sartu zuten eta araztua izan zen.

Lakuntza

Carlos Rodriguez Perez. Irakaslea Lakuntzan, araztua izan zen.

Arbizu

Julian Lapuente Salinas. Ameskoako San Martin herrian sortuta, abertzalea. Irakasleak ezin izan zuen Arbizun lanean segitu. Andres Maiza Lakuntza. Arbizu-

rra UGTko kidea, Linzoainen, Erron bizi zen. Irakaslea araztua izan zen. Anunciacion Mendinueta Lazkoz. Arbizarra abertzalea zen eta, horregatik, araztua izan zen. Jaime Olejua Irurtzun. Arbizarra, Ines eta Cornelioren semea zen. Dorraon bizi zen. Espetxeratu egin zuten.

Soledad Olejua Irurtzun. Herrian bizi zen Ines eta Cornelioren alaba. Abertzalea. Gasteiz aldean ihesean eta estalian ibili behar izan zuen. Ricardo anaia hil eta Jaime presosartu zioten. Araztua izan zen.

Etxarri Aranatz

Virginia Alonso Peña eta Victoria-no Aguado Baza, Marcillara lekualdatuak izan ziren. Arrazoiak: euren ideologia politikoa, elizkoitasun falta eta "Espainiako altxamendu loriatsu nazionalarekiko" zuten jarreragatik. Lekualdatze-zigorra

1937ko irailaren 22an iritsi zitzaizkien.

Altsasu

Milagros Fernandez Maraño. Herrian irakaslea zen eta estatu kolpearen ondoren araztua izan zen. Victor Uharte Razkin. Altsasun irakaslea zen eta araztua izan zen. Juan Rubio Lezea. Irakaslea, preso sartu eta araztua izan zen.

Olatzagutia

Domingo Bados Garcia. Ameskoako San Martin herrian jaio zen 1903ko abenduaren 29an. Marcelino eta Dorotearen semea, ezkongabea zen. UGTko kidea eta Olatzagutian irakasle, herriko zinegotzi izan zen 1933an. 1936ko gari-laren 25ean erail zuten.

Antonio Zubieta Gorriti. Irakaslea zen Olaztin eta araztua izan zen.

*Litekeena da zerrenda honetan irakasleak faltatzea.

Telekomunikazio sare egokia eratzeko proiektua, jendaurrera

Heldu den asteazkenean, 17:00etan, Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan

Ibarreko telekomunikazio sareak gabezia nabariak dituela jakina da. Udalek, Sakanako Enpresarien Elkarteak eta beste hainbat eragilek askotan egoera hobetzeko eskaera egin dute. Horregatik, Sakanako Garapen Agentziatik, Guifinet Fundazioarekin elkarlanean, Sakanan telekomunikazio sare egoki bat eratzeko proiektua landu dute. Egitasmoak epe motzeko eta ertaineko ekintzak mahai gainean jarriko ditu.

Hala, asteazkeneko aurkezpenean egungo telekomunikazio eskaintza hobetzeko dauden aukerak aurkeztuko dira. Esaterako, epe motzera wifi konexio bidezko zerbitzua sustatzea aurreikusten da, gaur egun hainbat herri eta enpresek duten egoera negargarriari irtenbidea ematea izanik helburu. Aurkezpenean, zerbitzu hori eskainiko duten enpresak izanen dira. Epe ertainera, berriz, zuntz-optiko bidezko azpiegituren



Telefono enpresa bateko langileak paretan lanean.

garapena sustatzeko proposamena azalduko da. Sakanako Garapen Agentziatik eta Guifinetek presatutako proiektua Nafarroako

Gobernuari aurkeztu diote. Izan ere, gaur egun Nafarroako Telekomunikazio Plana lantzen ari da eta han kokatzen da.

Gonbidapena

Euren telekomunikazio aukerak hobetu nahi dituzten edo interesa izan dezaketen herritar, eragile eta enpresei irekia da aurkezpena.

Telefonoa, duela 100 urteko udalen eskaera

Sakanako 14 udalak (Irurtzun Arakilen barruan zegoen) Etxarri Aranatzeko elkarte ziren, duela 100 urte, astelehenean. Altsasuko Udalak deituta elkar-tu ziren ibarreko tokiko erakundeak 1916ko irailaren 12 hartan. Mahai gainean gai bakarra: Sakanan telefono linea jartzea. 14 udalerritan telefono zerbitzua jarri nahi zuten. Ibarreko udal ordezkariak telefono zerbitzua lortzeko tramitazioak abiaraztea erabaki zuten.

Non erabili

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

Utsusuky packetan, %30eko deskontua.

ASENSIO

ALTSASU

100€tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ilea-paindegiko zerbitzuekin, makilaje ukitua doan.

GK

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

www.guaixe.eus-en
zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

SAKANA

Bankuen esku daude Sakanako 27 etxebizitza

Euren jabeek ezin ordaindu izanagatik eta etxegabetzeengatik bankuek Nafarroan 751 etxebizitza dituzte, horietako 27 Sakanan

Diario de Noticias egunkariak publikatutako erreportaje batean azaltzen denez, bankuek Nafarroan 751 etxebizitza dituzte, horietako 27 Sakanan, euren jabeek ezin ordaindu izanagatik eta etxegabetzeengatik egun euren eskue-

tara pasa direnak. 5.000 euro eta 894.000 euroren arteko balioaren artean mugitzen dira etxe hauek. Diario de Noticias egunkariaren iturriak Servihabitat, Rural Kutxa, Banco Popular, BBVA, Laboral Kutxa, Santander, Bankia, Ibercaja, Sabadell, Abanca, Bankinter eta Kutxabank eta beste iturri propio batzuk dira.

Sakanako 27 etxebizitzak

Aipatu egunkariak ematen dituen datuen arabera, eta alfabetikoki, Altsasun 9 etxebizitza dituzte bankuek (merkeenak 29.000 euro eta garestienak 171.500 euro), Ergoienan 1 (112.200 euro), Etxarri Aranatz 3 (84.200 euro), Irañetan 1 (141.920 euro), Irurtzun 3 (72.449 euro), Iturmendin 1 (165.400 euro), Lakuntzan 1 (prezioa zehaztu gabe), Olaztin 1 (62.530 euro), Uhartarakilen 2 (19.000-52.900 euro), Urdiainen 2 (40.000-72.200 euro) eta Ziordian 3 (56.900 euro).



Etxebizitza blokeak.

>> Etxarri Aranatz

Haurtxokorako izen ematea zabalik

Musika eskolako eraikinaren beheko partean dago Haurtxokoa. Udalak sustatu baina gurasoek txandaka zaintza eginez kudeatzen den zerbitzua. Haurrek eta gurasoek jolasteko toki egokia da, ikasturteko astegunetan 16:45etik 20:00etara zabalik dagoena. Zerbitzu horretan izena eman nahi dutenek hilaren 26ra arteko epea dute. Udaletxean, 948 460 004 telefonoaren bidez edo info@etxarriaranatz.eus web orriaren bidez eman daiteke izena. Familiako 5 euro ordaindu behar dira. Ikasturtea prestatzeko hasierako bilera irailaren 30ean, asteazkenean, 19:00etan izanen da.

Etxarri Aranazko Udalak, bestalde, aurreratu du 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako Gaztetxokoa ikasturte berriaren larunbat eta igande arratsaldeetan zabalik izanen dela. Gurasoendako bilera lastailaren 13rako deitu dute eta bi egun geroago erabiltzaile posibleendako ate irekien saioa egingen da maisu-maistren etxea izandakoan.

Horrekin batera, Etxarri Aranazko udalak aisialdirako begiralelan poltsa sortzeko deialdia egin



Ura, tentuz

Ohi bezala, ur botila bete asmoz iritsi da txirrindularia iturri ondora eta urik gabe opatu du. Aldameneko tabernako terrazan dauden bezeroek gaztigatu dute udalaren bandoaz: "ura tentuz erabiltzeko, beharrezkoa den erabileretarako bakarrik erabiltzeko". Udalak prebentzio moduan eman zuen aholku hori, izan ere, azken bi hilabeteetako lehorreak bargan dagoen Amaiturrietako iturburuaren emaria murriztu du. Horrelakoetan, Lizarrustikoa erabiltzen da eta Etxarri ez da ur eskasiarik izaten. Ura alferrik ez galtzeko iturria itxi zuen udalak. Txirrindulariari tabernan bete zioten botila.

du. Lehiaketa- oposizio bidez zerrenda sortu nahi du udalak, etorkizunean behin behineko kontratazioak egiteko. Deialdiari

buruzko argibideak www.etxarriaranatz.eus web orriaren daude. Izen ematea gaur, 14:00etan, despedituko da.

>> Irurtzun

Haur eskolen erabiltzaileendako laguntza deialdia

4 hilabete eta 3 urte bitarteko haurrak izan eta haur eskoletara eramandituzten irurtzundarrek udala-

ri diru-laguntza eskatzeko aukera dute. Familia eta lan bizitzak bateragarri egiteko udalaren egitasmoaren barruan dago deialdia. Eskara egiteko epea hilaren 30ean despedituko da. Eskarakegiteko honako baldintzak bete behar dira: guraso-

ek Irurtzun erroldatuak egotea, umea Nafarroako haureskola publiko batera joatea. Laguntza eskabide kopuruaren arabera izanen da, 632 euro gehienez, 421 gutxienez. Argibide gehiago udaletxean edo www.irurtzun.es web orrian.

>> Etxarri Aranatz

Kulturtik Ennecora

Nafarroako Gobernuak antolatutako Kultur programa joan den astean despeditu zen. Herrialdean barna kultur emanaldiekin batera, tokiko turismo baliabideez gozatzeko eskaintza osagarria izan da garilaz geroztik. Hala, Etxarri Aranatz Jo & Swiss Knife talde iruindarrak kontzertua jo zuen ostegunean, baina, aurretik,

Nafarroa luze-zabaleko 25 bat pertsonen Eneco, haritzaren memoria parkea ezagutzeko aukera izan zuten.

Hura sustatzen duen Nafarroa Bizirik fundazioko presidente Patxi Abasolok zuzendutako bisita gidatua izan zuten. Proiektuaren informazioa jasotzen duen liburuxka jaso zuten ere. Handik pasatzen diren guztien moduan, parkea jasotzeko auzolanean parte hartzeko eta Enneco lagun egiteko gonbidapena jaso zuten.



Enneco Haritzaren Memoria parkean bisita gidatuan. UTZITAKOAK.

>> Irurtzun

Komuna publikoak gaur mustuko dira

Foru plazan, udaletxearen azpiko aldean, komuna publikoak egin dituzte udala eta gaurtik aurrera zabalik egonendira, 9:00etatik 21:00etara. Aitor Larraza Carrera alkateak gogorazi duenez, "irurtzundarrok behin baino gehiagotan egin dugun eskaera izan da, horregatik, zerbitzua beharrezkoa zela uste dugu". Larrazak gaineratu duenez, denen eskaeria izanik "guztion ardura da erabileraren egokia egitea, gurea bezala sentituz eta erantzukizunez jokatzu".

>> Unanu

Konponketak Berriaineko pistan

Berriain mendi magaletik egurra ateratu da. Ondorioz, mendi magala zeharkatzen duen pista hainbat tokitan egoera kaxkarrean gelditu da. Unanuko Kontzejuak hainbat tokitan bidea konpondu du. Horretarako kaxkailua erabili du. Lanek 3.000 euroko aurrekontua izan dute.

>> Lizarraga

San Martinera bidea berritzera

Lastailaren 20a baino lehen San Martin ermitarako bidea konponduta egonen da. Lanak Osas eraikuntza enpresak egingen ditu 22.000 euroren truke. Lizarragako Kontzejuak lan horiek egin ahal izateko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izanen du.

>> Lakuntza

Txirrindulariaren istripua eragindako gidaria atxilotuta

Zitzu bizian zihoan auto batek txirrindulari bat errepidetik atera eta ezpondara bota zutela. Salaketa hori jaso zuen Foruzaingoak astelehenean. Lurrera erori ondoren gizonak bizkarrean eta besotan urradurak zituen eta goi-gamako bizikletan kalteak zituen. Salaketaren berri eman eta kalez jantzitako foruzain batek auto bat Lakuntzako kaleetan barna zitzu bizian ikusi zuen. Beste istripu bat eragin zezakeelakoan, Ermineta kalean autoa geldiarazi zuen eta beste patruila bat bertaratu zen. Autoan bi adin txikiko joaten ziren. Gidariari ausarkeriaz gidatzea eta baimena izan gabe ibilgailu gidatzea delituak egotzi dizkiote. Auzia Iruñeko Adingabeen Fiskaltzaren esku dago.

>> Olatzagutia

Kalte jarraituak eragiteagatik atxilotuta

Foruzaingoak jakinarazi duenez, 28 urteko gizon olaztiar bat atxilotu zuen iraila hasieran. Era jarraian kalteak eragitea leporatu diote eta gaia Iruñeko 3. zenbakiko instrukzio epaitegiaren esku utzi du. Foruzaingoak zabaldu duenez, auzipetuak beste olaztiar baten autoan eta etxean kalteak eragin zituen, guztiak salatuak. Foruzaingoak azaldutakoaren arabera, salaketetako batean salataileak kalean makil batekin zain zuen bat ikusi eta polizia deitu zuen. Haiek iritsi eta kaputxadun batek hanka egiten zuela ikusi zuten. Herritar berak, geroago, autoko lau gurpilak zulatu eta hura eta etxeko fatxada margotu zizkiotela salatu zuen. Iraila hasieran, berriro, salatu zuen autoko lau gurpilak zulatu eta guztiz margotu ziotela. Foruzainek pintura fresko zegoela sumatu eta susmagarria izan zitekeen pertsonarengana jo zuten. Gertaerak ukatu zituen baina poliziek susmoa hartu omen zioten eta etxe ingurua zaintzen ari zirela gizonak etxetik pintura potea botatzen ikusi omen zuten. Margotzean ibilitako zabalera bereko brotxa bat atzeman zioten. Horregatik, atxilotu egin zuten.

MENDIA

BERIAIN, ETB1EKO GAILUR SAIOAN: Gaur estrenatuko da Gailur saioa. Andoni Aizpuru eta Irati Andak mendi esanguratsuak

igoko dituzte, bertako mendizaleekin. Saio bat Beriainen grabatu dute. Iraila akaberan edo urriaren hasieran ikusiko da.

kirola >>

Atletismoa



Ergoienatik bueltaka ariko dira bihar korrikalariak,

Dorrao, Ergoienako Biraren abiapuntu eta helmuga

XII. Ergoienako Bira bihar jokatu da, larunbatean, 17:00etatik aurrera, Dorraon

Ergoienako Bira izaten da udako oporraldien ondoren jokatzeko den lehen lasterketa. XII. Ergoienako Bira Dorrao izango du abiapuntu eta helmuga. Bihar jokatu da, larunbatean, 17:00etatik aurrera. Aurretik, 16:30etik aurrera, kategoria txikikoen lasterketak jokatu dira.

Ergoienako Bira 8,5 km-ko proba da, Dorrao, Unanu eta Lizarraga batzen dituen eta tarteak gogorra, ibilbide gorabeheratsu horretan makina bat aldapa gainditu behar baitira, hori bai, paisaia bikainetik barna. Dorraotik abiatuta, Unanura joango dira korrikalariak, atzera ere Dorraotik pasatzeko, berriro Unanura joateko, ondoren Lizarragaraino heltzeko eta proba Dorraon bukatzeko. Proba Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria izango da.

Izena ematea bihar bertan egingo da

Korrikalariak egunean bertan eman beharko dute izena, proba hasi baino ordu bat lehenago. Aurreko urtean, Unanun, maila txikiendako probatan 51 neska mutiko lehiatu ziren eta proba nagusian 44 korrikalari. Raul Audikana olaztiarra (33:54) eta Izaskun Beunza olaztiarra (43:34) izan ziren azkarrenak.

Helmugatik pasatzen diren lehendabiziko hiru korrikalariak, gizonetako eta emakumetako, trofeoa jasoko dute. Gainera, ibarreko produktuen loteak zozketatu dira. Bukarera, guztiendako merienda prestatuko du Dorraoko Kontzejuak.

Aurretik txikiak

Proba nagusia baino lehen maila txikietako lasterketak jokatu dira, benjaminen mailatik hasita jubenetaraino.

Mendi lasterketak

Uharte Arakil-Beriain Km bertikala jokoan

Probaren 8. edizioa jokatu da igandean, 10:00etatik aurrera

Nahiz eta oso eguraldi ona ez iragarri, jendez beteko dira Uharte-Arakildik Beriainera bitarteko maldak, azken aldapa gogorrenak bereziki. Izan ere, Aralar Mendi elkarteko mendi klubak hainbat babeslerekin batera antolatuta, igandean, irailaren 18an, Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalaren 8. edizioa jokatu da, ikuskizun bikaina.

Goizeko 10:00etan abiatuko da proba Uharte Arakilgo frontoetik. Dortsalen banaketa herriko plazan egingo da, goizeko 8:00etatik aurrera. Helmugara igotzeko arroparen bilketa, berriz, 9:00ak arte egingen da. Uharte Arakilgo proba Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa da aldi berean, banakakoa eta klub artekoa, eta Euskal Herriko Bertikalen Koparako puntuagarria da, Defi Du Petit Train (Azkaine), Zegama-Aizkorri KV (Zegama), Anboto Km Bertikala (Atxondo) eta Araia-Aratz (Asparrena) probekin batera.

Proban 124 korrikalari daude izena emanda, aurreko urtean baino gutxiago, 194k hartu baitzuten parte. Banaka-banaka aterako dira 10:00etatik aurrera, proba kronometrata baita. Uharte Arakil (471 m) aterata Beriaingo San Donato ermita izango dute helburu parte hartzaileek (1494 m). Proba motza da, baina intentsitate handikoa: 5 km-ko lasterketa, baina 1.023 metroko desnibelarekin eta sekulako aldapa eta maldekin.

Gainontzeko korrikalarien denboraren erreferentziarik ez dutenez, lasterkariak erlojuaren kontra eta



Korrikalariak Beriaingo Uharte bideko malda gogorretan. ARLEGI

euren buruaren kontra egin behar izaten dute lana. Joan den urtean, 194 korrikalari aritu ziren, tartean 26 sakandar. Aitor Osak sekulako erakustaldia eman zuen eta berak aurretik zuen errekorra 27 segundotan hobetu zuen (39:54). Emakumetakoetan Uztarrotzeko Laura Sola izan zen azkarrena (51:49). Sakanarren artean Jose Luis Beraza izan zen azkarrena, helmugan 7.a sailkatu eta gero (45:35). Taldeka Sakana Bizirik izan zen onena eta Aralar Mendi hirugarrena.

Geroz eta ikusle gehiago

Edozein toki da aproposa proba jarraitzeko, baina azken zatia da gogorrena eta ikusgarriena. Urtero geroz eta ikusle gehiago biltzen dira Beriainen proba jarraitzera eta primerako giroa izaten da.

Errekorra: Aitor Osa (39:54) eta Leire Agirrezabala (49:47)

Emakumeendako eta gizonetako sarietako dagokienez, txapeldunek garaikurrak, txapela eta 300 € jasoko dituzte, bigarrenek garaikurra eta 150 € eta hirugarrenek garaikurra eta 100 €. Beteranoendako eta 18 urte azpikoendako txapeldundakogaraikurra izanen da.

Bestalde, errekorra gaindituz gero, 300 €-ko saria dago jokoan. Errekorra aurreko urtean apurtu zuen Aitor Osak (39:54). Aldiz, emakumetako errekorra 2013an ezarri zuen Leire Agirrezabalak (49:47).

www.uhartearakil-beriaian.com

Probako informazio guztia, ibilbideen track-a eta beste.

Mendi lasterketak

Nobedadeak dakartzan 10. Olatzagutia-Urbanen izena ematea zabalik

Irailaren 24an jokatu da X. Olatzagutia-Urbanen mendi lasterketa. Aurten, Nafarroako Banakako Txapelketa izango da Olatziko proba, eta aldaketak egongo dira. Batetik, proba nagusiaren ibilbidean bi igora gehitu dituzte, Egiburu eta Ziordiko portua. Hortaz, ibilbidea luzatu egin da eta 26,33 km eta 1.838 metroko desnibel positiboa izango ditu. Eta, nobedade moduan, ibilbide laburrago bategiteko aukera izango dute korrikalariak, 16 km-koa eta 1.122 metroko desnibel positibo duena. Izena ematea zabalik dago irailaren 21era arte, www.olatzagutia-urbasa.eus web gunean.

Mendi lasterketak

Beraza, Canfranc maratoia irabazteko zorian

Pablo Villalobosekin lehia estua izan ondoren, bigarrena sailkatu zen uhartearra, 9 segundora. Joxeja Maiza 4.a sailkatu zen eta Ander Unzurrunzaga 6.a

Ikusgarria gure mendi korrikalariak Pirinioetan egindako lana. Canfrancherrian 5 lasterketa ikus-

Sakandarrak Canfranc mendi maratoian (43 km, 3.910 m desnibel +)

1.	Pablo Villalobos	6:15:16
2.	Jose Luis Beraza	6:15:25
4.	Joxeja Maiza	6:43:00
6.	Ander Unzurrunzaga Iurrebaso	7:06:51
17.	Ander Unzurrunzaga Ganboa	8:02:30
39.	Alvaro Cuadra	9:07:50

Oharra: Sailkapenean ez zen korrikalarien jaioterriko daturik ematen eta gerta daitezke sakandarren bat ez agertzea

garririk jokatu dira asteburuan, Canfranc mendi maratoia (43 km, 3.910 m desnibel +) eta Canfranc lasterketa (16 km) tartean.

Canfranc maratoian lehiatu dira zenbait korrikalari sakandar. Desnibel gehien duen munduko mendi maratoia da, "maratien maratoia", diotenez. Bada, Jose Luis Beraza korrikalari uhartearra aipatu maratoia irabazteko zorian izan da, Pablo Villalobosekin lehia estua izan ondoren. Canfranceko kaleetan sprint estua jokatu ondoren, azkenean Pablo Villalobos gailenduz (6:15:16), Berazari 9 segundoratan (6:15:25). Joxeja Maiza etxarriarrak ere lan bikaina egin zuen eta podiumera igotzetik ger-

tu geratu zen, laugarrena sailkatu baitzen (6:43:00). Ander Unzurrunzaga Iurrebaso beteroanoak sasoian jarraitzen duela erakutsi zuen, 6.a iritsi baitzen (7:06:51).

"Lasterketa oso gogorra izan da, bana gozamen izan da Pablo Villalobos bezalako txapeldu handi batekin kilometroak konpartitzea. Jaitsieratan aurreratzen zitzaidan eta igoeratan harrapatzen nuen. Azken jaitsiera elkarrekin egin dugu eta berak irabazi du, Espainiako Maratoi txapeldu baita eta hala behar zuelako. Oso kontentun nago. Bigarrena izan naiz, lehen beteroanoa eta Moletako igorera (2.572m) lehena. Orain, igandeko Uharte Arakil-Beriain Km



Villalobos eta Beraza helmugan.

Bertikalerako sasoian egotea da tokatzen dena" adierazi zuen Uharte Arakilgoak sare sozialetan.

Mutiloa

16 km-ko proban Santiago Mezquita (2:04:55) gailendu zen. David Mutiloa 9.a sartu zen (2:28:58).

Futbola

Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek asteburuan ekingo diote denboraldiari

Lagun Arteak eta Etxarri Aranatz preferente mailan lehiatuko dira

Gure futbol taldeei iritsi zaie lanea bueltatzeko ordua. Asteburu honetan hasiko da preferente mailako 2016-2017 denboraldia. Lakuntzako Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek lehen multzoan jokatuko dute, ondoko taldeekin: Berriozar, Artajonés, Aibarés, Amigo, Lezkairu, San Andrés, Urroztarra, Beriain, Beti Casadano, Doneztebe, Bidezarra, Arrotxapea, Burlades eta Mutilbera. Ahalik eta lan onena egitea eta sailkapenean goian egotea, hori da asmoa. Aurreko denboraldian Lagun Arteak bosgarren postuan bukatu zuen denboraldia eta Etxarri Aranatzek, aldiz, seigarren postuan.

Liga etxean jokatzu hasiko dute preferente mailako bi talde sakan-

darrek. Lagun Arteak Artotxapea taldea hartuko du igandean eta Etxarri Aranatzek, aldiz, Artajonésen kontra jokatu du San Donato zelaian.

Altsasu hurrengo asteburuan sartuko da lehiari


Altsasu taldea erregional mailan lehiatuko da eta hurrengo astean ekingo dio denboraldiari, Dantzalekun, Amaiaen kontra jokatzu.

Etxarri IMQ Kopan

Asteburuan IMQ Kopako 3. jardunaldia jokatu zen eta Etxarri Aranatzek 2 eta 1 irabazi zion Lekunberriko Beti Kozkorri. Xabatek eta Garatek sartu zituzten Etxarriaren golak. Final hamaseirenetarako sailkatu da Etxarri eta urriaren 12an San Jorge izango du aurkari.



Eñaut Agirrebengoa.



Iñaki Berastegi.

Osasunako partidak Beleixe irradian (107.3 FM)

Euskalerrira irratia Osasunako partiden zuzeneko berremisioa egingo du Beleixe irratiak (107.3 FM) igandetik aurrera. Eñaut Agirrebengoa eta Iñaki Berastegi sakandarrak daude hizlari

Osasunak Sadarren jokatzeko dituen partida guztiak zuzeneko jarraitu ahalko dira Beleixe irratiaren (107.3 FM) bidez. Guaixe fundazioak kudeatzen duen Sakana Irrati euskaldunak Euskalerrira irratiarekin bat egiten du eta Iruñeko irrati euskaldun horren Osasunako zuzeneko partiden erretransmisioa da Beleixen igandetik aurrera entzungo dena. Euskaraz, jakina. Hortaz, igandehontan, 11:45etik aurrera Beleixe irratiarekin bat egiten duten Osasuna eta Celtaren arteko partidaren zuzeneko erretransmisioa entzuteko aukera izango dute.

Agirrebengoa eta Berastegi hizlari

Juan Kruz Lakastarekin batera bi kazetari sakandar arituko dira

partidak zuzenean emititzen: Guaixe kolaboratzaile den Eñaut Agirrebengoa kazetari altsasuarra eta Iñaki Berastegi urdiaindarra.

"Ideia Iñaki eta biok bakarrik aritzea da, baina momentuz Juan Kruz alboan izango dugu. Esatari lana txandatzeko joango gara. Orain arte partida bakarra eman dugu eta lehen zatian Iñaki esatari aritu zen eta ni iruzkinak egiten, eta bigarren zatian alderantziz. Eta hurrengo partidatan ere asmo hori dugu" azaldu digu Agirrebengoa. Lehen erretransmisioak sentsazioak "onak" izan zirela gaineratu du altsasuarrak. "Uste nuen luze egingo zitzaiola, baina pentsatzen dut nahiko txukun aritu ginela, zer esana ez zitzaigun falta izan" gaineratu du, irribarrez.

Igandean, 11:45ean, Beleixe irradian (107.3 FM)

Osasuna eta Celtaren arteko partidaren erretransmisioa.

Pilota

47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko finaletan sakandarririk ez

Pilotari sakandarrak ez dute lortu 47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko igandeko finaletara sailkatu. Finaletan, 22 urtez azpikoetan Espinalek Olano izango du arerioeta eliteetan Iriarte-Eskiroz Arrieta-Landiribarren kontra ariko dira

47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko finala

Igandean, 17:30ean Altsasuko Burunda pilotalekuan

Gazteak: Otxoa-Petriati / Nazabal-Ganboa

22 urtez azpikoak, lau t'erdian: Espinal (Uhartte Iruñea) / Olano (Iruztzun)

Eliteak: Iriarte (Buruzgain)-Eskiroz (Zugarralde) / Arrieta (Hernani)-Landiribar (Buruzgain)

47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko bigarren finalerdiko emaitzak

Gazteen partida: Olaetxea-Lazkoz 14 / Nazabal-Ganboa 22

Lau t'erdian: Olano (Zugarralde) 18 / Elizalde (Bortziriak) 16

Binaka: Ansa (Oberena)-Gorriti (Erreka) 20 / Arrieta (Hernani)-Landiribar (Buruzgain) 22

Bi finalerdi ikusgarriren ondoren badakigu zein pilotarik jokatuko dituzten Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako 47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko finalak. Igandean jokatuko dira partidak, 17:30etatik aurrera, Burunda pilotalekuan. Giroa berotzeko lehenik eta behin Etxarri Aranatz, Arbizu eta Olaztiko


Saskibaloia

Basket Navarra Altsasun

Denboraldiko aurre denboraldiko lehen lagunarteko partida jokatu zuen eta Sammic Iraurgi taldeak lortu zuen garaipena (62 eta 73)

Iñigo Zabalo saskibaloijokalarialtsasuarraren taldeak, Basket Navarrak, aurrendenboraldiko lehen lagunarteko partida jokatu zuen asteartean

Altsasuko Zelandi kiroldegian. Zilarrezko LEB mailan ariko diren bi taldeen arteko partida izan zen asteartekoa, Basket Navarrak Sammic Iraurgi taldea hartu baitzuen. Bi altsasu aritu ziren Basket Navarraren: Iñigo Zabalo jokalaria eta David Crespo prestatzailea. Sammic Iraurgi taldea nagusitu zitzaion Basket Navarrari (62 eta 73). Erritmo falta nabaritu zitzaion Basket Navarrari, lagunarteko partida gehiago jokatu dituen Sammic Iraurgi taldearen aurrean.



Gazteen mailako Olaetxea, Lazkoz, Nazabal eta Ganboa. GUZMAN

pilota eskoletako gaztetxoekin torneoko finala jokatuko da. Otxoak eta Petriatik Nazabalen eta Ganboaren kontra lehiatuko dira. Hauek izango dira finaletan ikusten ditugun sakandar bakarrak, afizionatuen mailako finaletara ez baita sakandarririk sailkatu.

22 urtez azpikoan Espinalek (Uhartte Iruñea) Iruztzun klubeko Olano aresoarra izango du aurkari lau t'erdian. Biak partida ikusgarriak egiteko datoz eta Altsasuko txapel preziatua jantztea, hori dute buruan. Eta elite mailan aurreko ordezkaririk sakandarririk gabe geratu gara Ongay, Ansa eta Gorriti finalerdietan erori eta gero. Iriartek (Buruzgain) eta Eskirozek (Zugarralde) Arrieta (Hernani) eta Landiribarren (Buruzgain) kontra jokatuko dute nagusien mailako finala. Finalerdietan

ikusitako dena konfirmatzen bada, puntako partida izango da hauer. Onenak irabazi dezala.

Frontoiaz, bitxikeria

Altsasuko pilotalekua 1954ko irailaren 12an mustuzen. Sarre-rain gainean, gero taberna izanzen harren fatxadan Fronton Burunda irakur zitekeen. Burdinezko letrak ziren. Armarria ere bazegoen. Taberna bota eta etxebizitzak jaso zituzten eta, horregatik, letrak kendu zituzten. Joan den astetik letra horiek berriro pilotalekuan daude. Udal biltegian zeuden (armaria ez) eta pilotalekuko txarteldegiko fatxada eraberritzean haiek jar-tzea erabaki du udalak.

Areto futbola

Magna Gurpea Xotak ezin izan zuten Peñiscola irabazi

Denboraldi aurreko lagunarteko lehen partidaren, Magna Gurpea Xotari 4 eta 2 irabazi zion Peñiscolak. Eserverri, Yoshikawa, Alvarito, Roberto Martil eta Dani Saldiseren baja izugarri nabaritu zuten berdeek.

NAFARROAKO KOPA

Magna Gurpea Xotak eta Aspil Vidalek jokatu dute Nafarroako Aretto Futbol Kopa irailaren 28an, Lizarran. Final aurrekoetan Magna Gurpeak 2 eta 8 irabazi zion San Juan eta Aspil Vidalek 0 eta 8 hartu zuten menpean Xota B.

ABONATZEKO KANPAINA

"Abonatu. Behar zaitugu!" du leloa Magna Gurpearen aurtengo abonakantza kanpainak. Aurreko denboraldiko prezioak izoztu dituzte. Familia abonak 80 euro baliotu, helduen abonak 50 euro eta gazteendako eta langabezia daudenendako abonak 25 euro. Iruñean -Ermitagaña kalea, 11- eta Iruztzun -Lizarra kalea, 5- eros daitezke.

Irristaketa



Fernandez, Mundialean. UTZITAKOIA.

Mundialean zilarrezkoa da Ioseba Fernandez

100 metro sprintean bigarrena izan zen iristalari iturmendiarra

Chinako Nanjingen Abiadura Irristaketako Mundialak jokatzeko ari dira. 100 metroko sprint proban zilarrezko domina jantzi zuen Ioseba Fernandez iristalari iturmendiarrak, Jorge Luis Martinez (9.820 segundo) txapeldunarengatik 17 ehunen korasartu eta gero (9.837 segundo).

Txirrindularitza

23. Sakanako Bizikleta Egunerako prestatzen

Irailaren 25ean izanen da, 9:00etan Irurtzundik aterata, Altsasuraino (41 km). Guztia antolatzeko irailaren 19a baino lehen eman behar da izena. Sakanako aintzinako Donejakue bidea gaia hartuta, Itxaspekin eta Zamartzen egingo dira geldialdiak

Nobedadeekin iritsiko da “Sakanako bizikletaz ezagutzen” leloa duen 23. Sakanako Bizikleta Eguna. Astelehenean aurkeztu zuten urtetik urtera finkatuagoa dagoen proba, Mank-eko egoitzan. Mank-eko antolatzaile du, Barranka, Burunda eta Aralar klubek laguntzarekin eta Irurtzungo eta Altsasuko Udalen babesarekin.

“Urtero errepikatzen dugu, baina egia da txirrindularitzarekiko afizio handia dagoela Sakanan, bai txirrindularien aldetik eta baita ikusleen edo zaleen aldetik. Urtean barna txirrindularitza proba asko antolatzen dira gurean, txirrindulari afizionatuak eta profe-

sionalak ditugu, eta klub eta talde garrantzitsuak ere. Horregatik pentsatu genuen, bere garaian, bizikleta egun ez lehiakor bat antolatzea interesgarria izanen zela eta urtetik urtera egun hori indarra hartzen joan da” azaldu zuen Amaia Gerrickagoitia kirol teknikariak.

Ongi pasatu eta jendea eta gure txokoak ezagutu

Txirrindularitzarekin goiz atsegin bat pasatzea da asmo nagusia, gure eskualdea gurutzatuz eta nahiko erraza den ibilbidea eginenez. “Halako erronka modukoa da Irurtzundik atera eta Altsasura iristea, tarte horretan gure herriak, kaleak, bideak, zubiak, baselizak eta basoak ezagutzuz” nabarmendu zuen Gerrickagoitia. Bide batez, Sakanako herri ezberdinetako adin ezberdinetako pertsonen arteko erlazioa sustatu

Izena ematea: irailak 19



Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrickagoitiak, Mank-eko garapen agente Iker Manterolak, Barranka taldeko Alberto Ocañak, Aralar klubeko Edurne Arkauzek eta Burunda klubeko Jose Antonio Begiristainek eman zituzten azalpenak. Sakanako Bizikleta Egunean parte-hartzea dohainik da, baina izena eman beharra dago, autobusak, bizikletak emateko kamioiak eta beste antolatzeko. Irailaren 19a arte eman daiteke izena, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus) edo herriz-herriz zehaztutako tokietan: Arakilgo udala, Irurtzungo ikastetxea eta kultur etxea, Uharre Arakilgo ikastetxean, Lakuntzako ikastetxean, Arbizuko kiroldegian, Etxarri Aranazko ikastetxean eta ikastolan, Bakaikuko udaletxean, Iturmendiko ikastetxean, Urdaingo ikastetxean, Altsasuko ikastetxeetan – Jesusen Bihotza, Iñigo Ariza ikastola, Zelandi eta Institutua– eta Altsasuko kiroldegian, Olaztikoko ikastetxean eta udalean eta Ziordiko udalean.

nahi da, eta eskualdetik kanpoko parte-hartzaileak ere animatu nahi dituzte proban aritzera. “Ea aurreko urteko 400 partaideak gaituzten ditugun” gaineratu zuten.

Itxaspekin eta Zamartze

Irailaren 25ean Irurtzundik goize-

ko 9:00etan abiatuko dira txirrindulariak, Altsasuraino heltzeko (41 km). “Gehienetan bigarren mailako errepideetatik ibiliko gara, asfaltoan, eta tarteka pistetara sartuko gara. Aurten Lizarragabengotik pasako gara. Nobedad moduan, eta Sakanako Garapen Agentziak Saka-

nako Donejakue bidea ezagutarazteko asmo horrekin bat eginda, Egiarretako Itxaspekin eta Uharre Arakilgo Zamartzen egingo ditugu geldialdiak” aipatu zuen ibilbidearen ardura duen Barranka Txirrindularitza Taldeko Alberto Ocañak.



Josu Etxeberria, Arabako Itzulian.

Arabako Itzuliko lider jarraitzen du Josu Etxeberriak

Horretaz gain, Izarren Proba irabazi zuen Intersport Irbia taldeko iturmendiarrak

Asteburu gozoa izan zen aurrekoa Aralar klubeko Intersport Irbia taldeko Josu Etxeberria txirrindulariariendako. Ostiral gauean Iruñeko Baiona etorbidean jokaturako 71. Izarren Trofeo irabazi zuen, eta igandean Artziniegan jokaturako Arabako Kadeteen Itzuliko 2. etapan bosgarrena sailkatu zen eta probako lidergoari eutsi zion. Bigarren, denbora berean, Quesos Albenizeko Marcos Pison da, eta bere taldekide Ailetz Lasa (Q.A.) 5.a da, 9 segundora.

MAIALEN ARAMENDIA EUROPAKO TXAPELKETETARA

Igandean Arabako Kadeteen Itzuliko bigarren etapan aritu zen, baita ere, Maialen Aramendia txirrindulari juniorra. Asteburuan Plumeleceen (Frantzia) jokaturako Europako Txirrindularitza Lasterketetan ariko da iturmendierra.

Txirrindularitza proba gehiagoren informazio gehiago: www.guaixe.eus



Lizarte, ikusgarri Altsasun

Lizarteko Sergio Samitier gailendu zitzaion Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Sergio Rodriguez 87. Altsasuko Txirrindularitza Proban, esprint estuan

87. Altsasu Txirrindularitza Proba

Sailkapena:

- Sergio Samitier (Lizarte): 3:04:11
- Sergio Rodriguez (Rural Kutxa-Seguros RGA): d.b.
- Julian Barrientos (Infisport): 3 segundora
- Asier Ormazabal (Lizarte, ziordiarra): 6:26ra
- Pablo Villar (Telco´m, arakilarra): 6:33ra
- Eneko Aramendia (Rural Kutxa-Seguros RGA, iturmendierra): 7:55era

Talde onena:

- Lizarte: 9:12:49
- Rural Kutxa: 9:13:43

Mendiko sailkapena:

- Urko Berrade (Lizarte): 8 puntu
- Tarteko helmugak (2 sari)**
- Sergio Rodriguez (Rural Kutxa-Seguros RGA): 3 puntu
 - Mikel Alonso (Euskadi Fundazioa): 3 puntu

Bihotzekoa emateko modukoa. Halakoa izan zen Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako 87. Altsasuko Txirrindularitza Probako finala. Rural Kutxa talde sakandarreko Sergio Rodriguez kokatu zen hobe helmugarako, San Juan kaleko bihurgunean lehena atera baitzen, baina Lizarteko Sergio Samitierrek zuen guztia eman eta bien arteko esprint ikusgarrian gailentzea lortu zuen (3:04:11). 3 segundora Infisport taldeko Julian Barrientos sartu zen.

Ibilbide berria estrenatu zuen 87. Altsasuko Txirrindularitza Probak. Altamira bostetan igo zuten txirrindulariek eta Altsasutik 10 aldiz pasa ziren guztira, probak festetan presentzia handiagoa izateko. Eta aldaketak arrakasta izan zuten. “Horrela, ibilbidea nahasia-

goa izan da, kontrola ezinagoa. Altamirako bosgarren jaitsiera eta gero, Iturmendi parean bost txirrindulariek egin dugu aurrera, horietatik 3 Lizartekoak. Os final estua izan da eta nahiz eta helmugarako gaizki kokatuta sartu, bihurgunetik bigarren atera bainaz, proba irabaztealortu dut, oso gutxiagatik” adierazi zuen, pozik, Huescako Barbastroko Sergio Samitier txirrindulariak (Lizarte).

Lizarte izan zen talde onena. Denboraldi bikaina egin du, 29 garaipenekin. Bertan dabil Ziordiko Asier Ormazabal, proban 28.a sailkatu zena, 6:26ra.

Mazkiaran: “Ez dugu irabazi baina aurrean egon gara”

Garaipena eskuan izanda, penatuta zeuden Rural Kutxa-Seguros RGA taldekoak. Alberto Mazkiaran zuzendariak azaldu zigunez, “herriko proba izanda, aurrean egon nahi genuen. Hasierako postuetan txirrindulariak sartu ditugu, baina



Bukaerako esprinta ikusgarria izan zen.



Txapeldunen podiuma.



Lizartekoak, onenak. Ezkerrean, Asier Ormazabal ziordiarra.

Txikiak Altsasun

Larunbatean, 17:00etan, Zumalakarregi plazan

Eskeletako neska-mutiek Ziordian izan zuten lasterketa aurreko larunbatean. Bihar, larunbatean, Altsasun ariko dira. Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta, eskolarteko txirrindularitza proba hartuko dute Zumalakarregi plazak eta inguruek, 17:00etan. Ginkana eta lasterketak jokaturako dira.

Lizarte aurtengo talde indartsuena da. Ez dugu irabazi baina horrekin egon gara”. Denboraldiaren balorazio positiboa egin zuen. “Aurreko denboraldia zoragarria izan zen, 7 txirrindulari pasatu genituen profesionalek. Aurten txirrindulari gazteagoekin aritu gara eta trantsizio moduko urtea izan da. Hala ere, Zamorako Itzulia irabazi dugu eta Espainiako Kopako bi proba ira-

bazi ditugu, besteak beste”.

Euskaldun Torneoa, Egoitz Fernandezendako

Altsasuko lasterketak Euskaldun Torneoa erabakitzen zuen. Jorge Azanza altsasuarrak zuzentzen duen Euskadi Fundazioko Egoitz Fernandezek jantzi zuen txapeldunaren maillota. Sergio Rodriguez lehen nafarra izan zen.

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com


Felixiana Arroki Arrillaga
89 urte

Oroimena, zure burua bezain argi geratuko da gure artean.
Bidai on.

Arbizuko Kondezarra familia
Ataun / Arbizu

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Euskara hutsean argitaratuko dira.



Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin



Foru plaza, 23-1 Altsasu · 948 564 275 · gk@gkomunikazioa.eus

gk KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK LOKALAK
ALOKATU

Bulegoa alokatzen da Altsasun.
Igone Goikoetxea Motino, 948 563 352 eta asesoria@asesoriagoikoetxea.es.

LANA | NEGOZIOAK LAN ESKAITZAK

Etxarri Aranazko Udalak, danza latindarrak ikastaroa emateko irakaslea behar du. Interesa baduzu, curriculumare bidali kultura@etxarriaranatz.eus email helbidera edota 606 239 008 telefonora deitu.

Etxarri Aranazko Gure Ametsa jubilatuen elkarrekin taberna kudeatzeko pertsona bat behar du. Interesatuak irailaren 25a baino lehen eta arratsaldeko 19:00etatik 20:30era, joan beharko dute elkartera.

IKASTAROAK Nafar Lansare-k ikastaro hauek antolatatu ditu Altsasuko LH institutuak: CP2- Txirbil-harroketarako mekanizazioa eta CP2- Mantentze-lanak eta muntaia mekanikoa industria-tresneriaren. Hasiera irailean. Badaude plazak libre. Galdetu Enplegu zerbitzuan.

Zer egin liburuekin. Yolanda Arrieta idazleak urteko liburuak irakurtzen nola aritu azalduko du lastailaren 1ean, larunbatean 10:00etatik 13:00etara Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitza. Izena-emateko: euskaral@sakana-mank.eus e-posta helbidera. Matrikula 10 €. Plaza mugatuak.

Irurtzuko ikastaroak: Antzerki tailerra, Irakurketa taldea, Marraketa eta

pintura, Mantentze-gimnasia, Gorputz jarrera, Pilatesa, Bizkortzea/gap, Zumba, Kirol entrenamendua eta spinning-a. Izen-ematea irailaren 26ra arte. Informazioa www.irurtzun.es web orrian.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK
OPATUTAKOAK

Maria Eugenia arrandegiaren aurrian sandalia bat opatu zen abuztuan, gorria eta urdina. Galdutuen hotz egin dezala Guaixera, tel 948 56 42 75.

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrakoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarietako aldeko abenduaren 30. ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legezaren aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoebuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-

postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxazia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswagengene langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarrekin baka-rra dira. Fundazioetik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

Goiener Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak

egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezate.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarregui@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Errefuxiatuendako material bilketa. Adin guztietako arropak, haurrentako eskola materiala eta jakia biltzen dituen AHNAN. Altsasun, Frontoi zehar bidearen 14an udalak duen baxer, astelehen eta ostiralean, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatz, udal txoko eta

lopeko eskubiko atean, astearte eta ostiralean 17:00etatik 19:00etara.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilenari laguntza emateko aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin deia. Sakanako produktueko ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinekin eskatu. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne

begetalak, ezti, arrutzak, garagardea, lekaleak, ospina. Informazioarako: 656 711 130 (Gorka).

Herialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak. Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehene eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoa.

JAIOTZAK

• Zigor Carrascal Ardanaz, irailaren 5ean Irurtzunen.

EZKONTZAK

• Juan Jose Lopez Bautista eta Primitiva Garcia Moreno, irailaren 10ean Irurtzunen.
• Jon Zabala Arza eta Laura Cabada Rodriguez, irailaren 10ean Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Udako argazki onenaren alde egitera!

Asteleheneko 12:00ak arte Udako Argazki Lehiaketara aurkeztutako irudiren baten aldeko botoa eman dezakezu www.guaixe.eus web orrian

Agorrila guztia eta irailaren 9ra arte izan dute sakandarrek euren udako argazkia Guaixeren web orriko lehiaketara aurkezteko. Epea itxita 49 argazki dira aurkeztu direnak. Bi sari daude eta bi epaimahai daude. Alde batetik, publikoaren saria dago. Lehiaketara aurkeztutako argazki bildumatik bakarren bat gogoko izanez gero, haren alde botoa emateko aukera dago. Horretarako, www.guaixe-eus-en

propio sortutako atalean sartu eta botoa ematea besterik ez dago. Hiru argazki aukeratu daitezke, hori bai, ordenagailu bakoitzetik behin bozkatu daiteke. Orain arteko bozketan sei argazki nabarmendu dira.

Publikoak emanen duen sariaz aparte, propio eratutako epaimahai batek emandako beste sari bat ere banatuko da. Pertsona bakar batek bi sariak ezin dituen ez irabazi, bi sarituen izenak irailaren 23an publikatuko ditugu Guaixe astekarian eta www.guaixe.eus web orrian. Orduan jakinen dugu opariaren kutzak zein sari gordezten duen.

bazterretik

Jaunkar Lopez Mugertza

Maisu baten fitxan: "egindako delitua: batek daki"

"Zuen izenak ezabatuko ditugu eta madarikatuak izango zarete belau-naldiz belau-naldi. *Euzkadi* deritza tenartifizio hori mapetan marra berdez markatzen duten maisu-maistra guztiak atzerriratuko ditugu." Halaxe mintzatu zen gerra ondoren *El Diario Vasco* egunkariko zuzendari eta Gipuzkoako Gobernadore Zibil frankista zena. "Sikario hauek, Errusiaren morroi hauek bizkarretik erailak izanen dira eta ez dute aurkituko ez eskurik beren begiak ixteko, ez besorik haien hilobiak aitzurtzeko, ezta ahorik ere haien arimaren alde otoitz egiteko". Halaxe Bizkaiko Prentsa eta Propagandako arduraduna. "Beharrezkoa da terrore giroa sortzea, menperatze sententzia argi uztea gure modura pentsatzen ez duten guztiei lepo eginez kezkarik eta zalantzarik gabe. Gure jardunak biziro erasan behar die. Ahobeteka edo ahopeka Herri Frontearen aldekoa den orok fusilatua izan behar du." Halaxe Emilio Mola madarikatua. Aurreko bi aipua Iñaki Egañaren liburuan aurkitu ditut (*Francoren krimenak Euskal Herrian*). Hirugarrena, estatu terrorismoari buruzko edozein eskuliburutan. Joan den astean 1936an Nafarroan eraildako eta errepresaliaturikom maisu-maistrei omenaldia egin zitzaizen Magisteritzako Eskola zaharren atean aurrean. Nafarroan ez zen gerrarik izan, kolpisten atzeguardia baitzen, baina epaiketarik gabe eraildakoak mila-

ka izan ziren, haien artean 33 maisu-maistrak. Batzuk Urbasako leizean, Otsoportillon, amilduak -Camino Oscoz, sexu erasoak jasan zituen, eta Balbino Bados, Arabako Zaldondo, Galarreta eta Gordoako maisuekin batera-, eta bat Altsasun -Domingo Bados ameskoarra, Olaztin bizi zena-. Estatu kolpea izan eta bederatzigunetara Nafarroako Foru Aldundi ilegalak maisu-maistren izendapenak berrikusi behar zirela agindu zuen, mutilak eta neskak ez zirela handik aurrera ikasgela berean egongo, Espainiaren batasuna aldarrikatu behar zela, Kristo Erregearengaraipea, autoritatearen nagusitasuna. Hezkuntza Batzar Frankista eratu berriak Zerrenda Beltzak apailatu zituen eta lehenengo 14 exekuzioak berehalaxe gertatu ziren. Batzarburuak mezu bat bidali zien Nafarroako udal guztiei txosten bat eskatuz: "Jakin behar da ea maisu-haur kontzientziatarako nahastaila ote den, hala alde moralean, nola patriotikoan, edo, aitzitik, ea gizon bat den zeinak bere balore moral eta patriotikoenatik duintasunez eraman ote dezakeen *Maisu* izena". Honen ondorioz, Altsasuko hiru maisu-maistra maisutatik botatuz: Victor Huarte Razkin -heriotz zigorra ezarri zioten baina ez zuten exekutatu-, Juan Rubio Lezea eta Milagros Fernández Marañón. María Ezkurdiak Rekalde etxeko ekonomiari buruzko eskolak ematera behartu zuten. Arbizuko Andres Maiza Lakuntza eta Anunciacion Mendinueta Lazkotz depuratuak izan ziren. Delitua? Batek daki.

Zine sasoia hastear da Altsasun



Iortia kultur gunea berriro ibarreko zinemasaleen bilgune bihurtzeko gero eta gutxiago falta da. Altsasuko Udako Kultura Zerbitzuak jakinarazi duenez, zinema denboraldi berria heldu den ostegunetan, 19:00etan, hasiko da, gaurkotasunezko filmen emanaldiarekin. Hasteko Ben-Hurren moldaketa berria ikusteko aukera izanen da. Lastailako aurreneko domekatik familiarterko zinema ikusgai izanen da Iortian. Forum-zinema, berriz, ferien ondorengo asteburutik aurrera (lastailak 21). Sarrerak, dagoeneko, txarteldegian eta online salgai daude.

Sinadurak

Azken zinema denboraldia maiztaren lean despeditu zen, 15ean beharrean. Horrek zinemasaleen haserrea sortu zuen. Kexua azalduz eta murrizketa salatuz hainbat sinadura jaso zituzten eta udalari aurkeztu. Alkateak erantzun zuen 2015-2016 denboraldian aurrekoan baino forum-zinema emanaldi gehiago izan zirela. Eta lehenago bukatzearena agenda eta aurrekontu arrazoiengatik argu-

diatu zuen. "70 film baino gehiago eman ditugu. Beraz, Altsasu da Nafarroan eskaintzarik zabalena duena". Aldi berean, sasoi berriko denboraldia zabalduko zela aurreratatu zuten alkateak.

Kultura Zerbitzuak iragarri duenez, inoiz baino luzeago izanen da zinema denboraldi berria. Izan ere, gaurkotasunezko zinema garagarriaren erdialdera arte programatuko da. Forum-zinema Aste Santura arte (apirila erdialdea) izanen da. Familiarterko zinema, azkenik, apirilera arte igandera arte izanen da. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Zinema ordutegiak

Gaurkotasunezko filmak:

ostegunetan, 19:00etan, ostiraletan 22:00etan eta domeketan 20:10etan.

Forum-zinema: ostiraletan, 21:45ean eta domeketan, 20:00etan.

Familiarterko-zinema: domekak, 17:00etan.

Sarreraren abonamenduak badaude, kontsultatu!

Literatur hizketaldiarekin, Astelehen Zoriontsuak bueltan

Astelehenean, 19:30ean, Irurtzungo Iratxo elkartearen elkartuko dira

Iñaki Petxarromanen aurreneko eleberria, *Kearen fiordo* (2015, Elkar), Astelehen Zoriontsuak ekimenaren ikasturteko aurreneko hitzorduaren ardatza da. Egitasmoa arakildar eta irurtzundar batzuk apirilean martxan jarri zuten. Hilean behin, astelehenean elkartzen dira. Elkarrekin euskaraz hitz egitea da helburua. Horretarako, testuen edo ikusentzunezkoen inguruan iritzia emateko elkartzen dira. "Irakurritakoa eta ikusitakoa norberaren barruan gelditu beharrean, taldera ateratzea eta besteen iritzia entzutea da egin nahi duguna".

Ikasturteko aurreneko hitzordura liburua irakurrita joateko gomendioa eman dute. Liburu horretan Petxarromanek, fikzioaz baliatuta, 1615. urtean Islandian hil zituzten euskal baleazaleen istorioa kontatzen du.

Musikak gatibu hartzeko prest

Gaur, 23:00etan, Altsasuko Iortia kultur gune parean, Gatibu taldea



Alex Sarduk (ahotsa), Gaizka Salazarrek (bateria), Mikel Caballerok (baxua) eta Haimar Arejitak (gitarra) osatzen dute Gatibu taldea. Euren seigarren diskoa, *Euritan dantzan*, aurkeztuko dute. Erraz harapatzen duten doinu zuzenez hornitua, pop eta rock klasikoan iradokitutako gitarra zoli eta orekatuen eta gorputza astintzen laguntzen duten baxu eta bateria borobilen sinbiosia da.

Mank **KONTU KONTARI**
zer egin liburuekin?
hitzaldi-lantegia
Yolanda Arrieta idazlearekin

Guraso, zaintzaile, irakasle, irakasle-gai, monitorea eta liburutegiko arduradunendako

Urriaren lean, larunbatarekin,
10:00etatik
13:00etara.
Lakuntzan,
Sakanako
Mankomunitatearen egoitzan

Umeekin liburuak irakurtzean nola jardun eta zer egin azalduko du tailergileak. Bertaratzen direnek haur literaturaren ahozko baliabideak ezagutuko dituzte modu praktikokoan, jokoaren bidez. Haur Literaturako informazio gaurkotua non topatu ere eskainiko da. Lantegian parte hartu nahi dutenek, izena eman beharko dute aldeztu aurretik euskaral@sakana-mank.eus helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira. Matrikula 10 eurokoa izanen da.

<< FRANTSESA

Maila guztiak
Eulerako prestakuntza

AHALEGIN

672 162 036
ahalegin@yahoo.es

FESTAK

Altsasu:

>> Irailak 16, ostirala

9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.

11:30ean Hamaiketako, Foru plazan, Bete Jaten gastronomia-elkarteak eskainia.

12:00etan Pepa eta Kutxo pailazoak, Iortia zabalgunean.

12:00etan Omenaldia herriko nagusiei. Abardia jarriko zaie etxean, Txorongo Txarangak girotua.

13:30ean Eguediko kontzertua La Rivera Canta taldearekin, Foru plazan.

14:00etan Nagusien omenezko bazkaria Burunda frontoian. Ondoren dantzaldia Bete Jai bikotearrekin 20:00ak arte.

16:00etan Peñen kafea eta kalejira, Foru plazan. Merienda ibilbidean zehar.

18:00etan Bordetxe animalien zirkua, Foru plazan peñen txarangak girotua.

19:30etik 21:30era Kontzertua, mexikar musika Puro Relajo taldearekin, Foru plazan.

19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.

20:00etan Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. **21:15ean** iristea Foru plazara.

21:30ean Altsasuko Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarrekin gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

22:00etan Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:00etan Zezensuzkoa, Foru plazan.

23:00etan Kontzertua: Gatibu, Iortia zabalgunean. Ondoren DJ Txo, Foru plazan.

>> Irailak 17, larunbata

9:00etan Dianak Haize Berriak banda eta Arrasateko gaita-jotzaileekin.

11:30ean Hamaiketako La Encina elkarteak eskainia, Foru plazan.

11:30etik 13:00etara Haurrendako talo-tailerra, Iortia zabalgunean.

13:30ean Eguediko kontzertua Haize Berriak banda eta Arrasateko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

15:00etan Herri bazkaria, Iortia zabalgunean. Ondoren kontzertua Korrontzi taldearekin.

16:00etan Plater-tiroketa Aitzarte zabortegean, Ehiztari eta Arrantzaleen Erkuden Elkarteak antolatuta.

16:00etan Peñen kafea eta kalejira Foru plazan. Merienda ibilbidean zehar.

17:00etan Eskolarteko txirindularitza



proba, ginkana eta sari banaketa, Zumalakarregi plazan eta inguruetan. Burunda Txirindularitza Elkarteak Udalarren laguntzarekin antolatuta.

19:00etan Salsakana Taldearen emanaldia eta dantzaldia Kubako musikarekin, Iortia zabalgunean.

19:30etik 22:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin, Foru plazan.

19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.

20:00etan Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. **21:15ean** iristea Foru plazara.

21:30ean Altsasuko Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarrekin gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

22:00etan Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:30etik 00:30era Gazte Gauak Lavaderon DJ Sergueyekin.

00:00etik 3:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin, Foru plazan.

00:00etik 2:00etara Peñen igoera Foru plazan hasi eta Zumalakarregi plazara.

>> Irailak 18, domeka

9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaile eta Zangitu Fanfarrearekin.

11:30ean Hamaiketako Amandrea gastronomia-elkarteak eskainia, Foru plazan.

11:30etik 14:30era Txiki parka eta Txu-Txu tren, Zumalakarregi plazan.

13:30ean Eguediko kontzertua Trasteando taldearekin, Foru plazan.

14:00etan Munduko arroz dastatzea. Bazkalondoa izanen duen bazkaria irekia Herri Mugimenduak, Gizarte Zerbitzuak eta Immigrazio Zerbitzuak antolatuta.

16:00etan Peñen kafea eta kalejira Foru plazan. Meriendak ibilbidean zehar.

16:00etatik 19:00etara Txiki parka eta Txu-Txu tren, Zumalakarregi plazan.

17:30ean XLVII. Otadiako Santokristo pilota txapelketaren finala Burunda frontoian, Altsasuko Kirol Elkarteak Udalarren laguntzarekin antolatuta.

18:30ean Tio Teronen semeak Freshcool-a, euskal-dantza ikuskizun berritzailea, Foru plazan.

19:00etatik 22:30era Dantzaldia Kresala taldearekin, Foru plazan.

19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.

20:00etan Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. **21:15ean** iristea Foru plazara.

21:30ean Altsasuko Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarrekin gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

22:00etan Zezensuzkoa, Foru plazan.

23:30ean Festen agurra eta azken petardo-sorta udaletxean. Ondoren Peñen kalejira.

HERRI MUGIMENDUEN EGITARAUA

>> Irailak 16, ostirala

13:00etan Rock maratona Altsasuko taldiekin, karpan.

14:30etan Makarroi-jana.

16:00etan Kafiek.

19:00etan Presuen aldeko mania.

20:00etan Bajadika.

2:00etan Zumba, karpan.

5:00etan Magrak, gaztetxien.

>> Irailak 17, larunbata. Alde Hemendik eguna

12:30ean Hodei magoa, karpan.

16:00etan Kafiek.

20:00etan Bajadika.

21:30etan Kontzertua: Zikinak, gaztetxien.

23:00etan Bax Pifi, gaztetxien.

00:00etan Subidika.

2:00etatik 5:00etara Jotaxo dj, karpan.

5:00etan Magrak, gaztetxien.

>> Irailak 18, domeka

11:00etan Munduko Arrozak, karpan.

16:00etan Kafiek.

20:00etan Bajadika.


00:30ean Dj eta txarangakin gauteka, karpan.



Auzolanen 800 bazkaltiar asetzera!

Bihar, 15:00etan, Zelandiko kiroldegian izanen da

Biharko herri bazkarian 800 pertsona elkartuko dira. Antolatzaileek hasieran 700endako prestatuta zuten, baina azken uneko eskaera kopurua ikusita beste 100 pertsonari jaten ematea erabaki dute. 2012az geroztik egiten den herri bazkaria Altsasuko festetako ekitaldi jendetsuenada. Herriko kultura eta kirol elkarteak arduratu dira hura antolatzea orain arte. Aurten hainbat arrazoiengatik ez da posible izan. Enpresa bati eman beharrean, altsasuar talde batek herri bazkaria jaio zen moduan mantentzeko ahalegina egin du: "herri sortuta eta kudeatuta, eta herriarendako egina." Bazkarirako txartela dutenak jabetuko ziren atzeko aldean inkesta moduan lau aukera eskaintzen direla. Haietako bat markatu behar du bazkaltiar bakoitzak. Boto gehien eskuratzen duen aukeran inbertutuko da bazkarian lortutako dirua. Honakoak dira lau aukerak: mahaia eta ontziteria.



Munduan barnako gastronomia bidia

Domekan, 11:00etatik aurrera, Zubeztia plazako karpan Munduko Arrozak

Oinarrizko jaki bat, arroza, kultura adina modutara prestatzen dena, eta mundu guztian kontsumitzen dena. Arrozak batzen gaituela sinistuta, Munduko Arrozak ekimen antolatu dute etzira Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak, Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta herri mugimenduak. Guztien helburua Zubeztiako karpak kultura desberdinetako pertsonen hurbiltasuna eta harremanak sortzeko tokia bihurtzea da. Eta, horrekin batera, altsasuarren artean kulturen arteko elkarbizitza, topaketa eta eza-gutza erraztea.

Bangladeshen, Bulgarian, Senegalen, Gambian, Marokan, Pakistanen, Valentzian, Altsasun eta beste hainbat tokitan arroza nola prestatzen den ikusteko aukera izanen da. Errefuxiatuen arroza izanen da ere. Baita haiek guztiak dastatzeko ere, bukaeran prestatutako arrozak jatera emanen baitira. Lehiaketatik, beraz, ez du ezer. Munduko Arrozaren ekitaldiarekin antolatzaileek Altsasu kultur-anitza dela erakutsi nahi dute. Hau da, kultura aberastasun ikaragarria dagoela, eta munduari beso-zabal doakion herria dela ere.

Munduko Arrozak ekitaldian begiratu, galdetu, hartu, dastatzeko eta gozatzeko aukera dago. Antolatzaileek sorpresak iragarri dituzte. Aurreratu dute, hori bai, hennaz edertzeko aukera izanen dela. Immigrazio Zerbitzuak, bestalde, sentsibilizazio kanpaina martxan du eta haren bat egin nahi dutenek photocall-ean parte hartzeko aukera izanen du. Grezian errefuxiatuek bizi duten egoeraren berri ematen duten erakusketak ere izanen dira. Guztia despeditzean, parte-hartzaileen adiskidantza bazkaria izanen da.

Festetan egunero karta berezia

948 562 549 ALTSASU

Basomutur Erretegia

PORTUKO OKINDEGIA

ogiaren artisauak

Altsasu 948 563 822

Lantegia 948 467 153

Etxarri Aranatz 948 460 988

Ongi pasa festetan !!

Amaya

Okindegi-gozotegia

ARAI . 945 314 572 . OLAZTI . 940 460 755

ETXARRI ARANATZ . 940 461 660

ALTSASU . LANTEGIA . 940 562 205

ZUMALAKARREGI PLAZA . 940 460 026

AMAIA SUPERMERCATUA . 940 562 185

SAN JUAN KALEA . 940 564 053

NETTO . 659 288 401

OKINDEGIA - GOZOTEGIA - KAFETEGIA - OGIA - PASTELAK - KAFEA - TXOKOLATEA - PASTAK - BONBOIAK

ONGI PASA FESTETAN !!

Sexu erasoen aurka elkar hartuta

Festetarako irizpideak ematen dituen gida argitaratu dute, "emakumeen giza eskubideen kontrako arazo sozial larrirenetarik bati" erantzuteko. Nabarmendu duteenez, "arazoa soziala da, ez norberarena eta ezabatzeko ardura pertsona guztion da"

Altsasu: sexu erasorik gabeko festan alde kanpainaren barruan udalaren Emakume eta Berdintasun Batzordeak festen aurretik tailer irekia antolatu zuen. 17 pertsona elkar-tuziren, gazteak gehienak, prebentzioa landu eta eraso ei denen artean erantzuna nola eman erabakitzeke. Irailaren 1eko eta 2ko saioetako lanaren ondorio da batzordeak publiko egin duen gida. Hartan udalaren, gizarte eragileen eta altsasuarren jarduerak biltzen dira.

Gidak lau helburu garbi ditu: sexu erasoak saihestea; altsasuarrak sensibilizatzea, sexu erasoak emakumeen kontrako indarkeriaren isla direla eta eraso horiek denen ardura direla; eraso bakoitzaren aurrean erantzun egokia nola eman jakinaraztea eta, azkenik, erasotutako emakume arreta hobeanola eman nola koordinatu jakinaraztea.

Festetan sexu eraso emanen den aurreikuspen du gidak. Udalaren, mugimendu feministaren eta herri mugimenduaren kideek osatutako koordinazio mahaia eratuko da. Erasotutakoaren borondatea beti kontuan izanen du. Erasoa publiko egin bada mahaia herritarren erantzuna antolatuko du. Festa gunean eman daitezkeen erantzunnez gain (megafonia mezuak, itxiera puntualak...) elkarretaratzeko deialdia ere aurreikusten da.

altsasun.erasorik ez@gmail.com

Altsasuko mugimendu feministako kide batek kudeatzen duen kontua da eta han festetan gertatutako erasoen berri emandateke. Identitatea gorde nahi duenari honako eskaera egin diote: "saiatu zaitze informazioa ahalik eta argien ematen; izan ere, asmoa da errealitatea ahalik eta ondoen ezagutzea aldatu ahal izateko".

Ospakizunen ondoren mahaia, atzera ere, bilduko litzateke.

Sexu erasoen intentsitatea

Gidan argi eta garbi jasoa dago zer diren sexu erasoak: "pertsona batek beste batengan ezarritako nagusikeria da: ez da gaizki-uler-tu bat, ezta gatazka bat". Pertsona guztiak ezberdinak garelako kontuan hartzen du eta eraso "pertsona bat erasotua sentitzen denean" ematen dela ziurtatu dute gidaren egileek. Argi utzi dute ez drogek ezta bestelako jarrerak ere ez dutela erasoak justifikatzen.

Jendarteari, patriarkatuari erparatu diote ere: "botere harremanetan sustatzen den sistema bat da, gizonak egoera pribilegiadun batean ezartzen dituen. Era honetan, gizonak duten eskubide-sailak, nagusitasun posizio bat ezartzen ditu. Honek ez du esan nahi gizon guztiek botere hau gauzatzen dutenik, baina erabiltzeko ahalmena dutela pentsatuz hezi daitezke". Erasotutako pertsonak "biktima pasiboak baino, bizirik irauten duten pertsonak" direla gogorazi dute. "Horregatik, beti beraien baimenarekin jardungo dugu, beren iritzia pertsonala errespetatuz".

Gidan intentsitate altuko eta baxuko sexu erasoak zein diren zehaztu dituzte. Aurrenekoen arte-



Tailerreko parte-hartzaileak eta sustatzaileak.

Zabalkundea

www.altsasu.net, Facebook eta Twitter sare sozialetan eta tabernetan zabaltzeko gida. Eraso larri baten aurrean zer egin jakinarazten duten kartelak jarri dituzte tabernetako komunetan.

an daude kolpeak, jipoiak, bortxaketa-ahalegina, bortxaketa eta erailketa. Baxuen artean, berriz: gustukoak ez diren begirada eta jarrerak, baimenik gabeko ukitzeak, unatzea, kontrolatzea, jarrera jeloskorrak, mehatxuak, xantaiak, iraingarriak edo laidogarriak diren esamesak, ahazko gehiegikeriak, burlak, irainak, mespretxuak, desiragarriak ez diren piropoak hauen

Intentsitate baxuko eraso baten aurrean zer egin?

Norbait eraso dutela esanez etortzean, tabernan edo kalean norbait erasotzen edo molestatzen ari direla ikustean.

1. Erasotutako emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo barrakoari.
2. Beste pertsona bat bazara: aztertu kasua eta errespetatu emakumearen erabakia, intimitatea eta konfidentzialtasuna.
3. Laguntzarik behar ote duen galdetu. Ezetz esaten badu, ez gara tematu.
4. Baietz esaten badu, gure laguntza eskainiko diogu. Horretaz gain, udaltzaingoaren telefonoa emango diogu (636 458 016), nahi badu, eskura zer baliabide dituen galde dezan.
5. Erasotzaileari jai eremutik, tabernatik... joateko eskatu. Kasurik egiten ez badu, ahalik eta jende gehien elkartu, festa-eremutik kanporatzeko.

helburua pertsona edo talde bat irri-garri uztea denean, onartuak ez diren kontaktu fisikoak, ukitze eze-rosoak, pertsonarentzat ezatseginak direnean edo sinbolo sexista iraingarrien erakusketa.

Intentsitate altuko eraso baten aurrean zer egin?

Sexu eraso ikustean edo norbait laguntza eske hurbiltzean

1. Erasotutako emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo barrakoari.
2. Eraso sexista bat ematen ari dela ikusten baduzu, eraso jasaten ari denarengana jo eta laguntzarik behar duen galdetu. Inor hurbiltzen bazaizu laguntza eskatzera, lehentasuna eman.
3. Arretaz eta errespetu handiz entzun. Babes emozionala eskaini, eta ez utzi bakarrik.
4. Premiazko laguntza behar badu, deitu: 112 telefonora edo Udaltzaingora (636 458 016). Egon berarekin horiek iritsi arte eta erasotzailea identifikatu.
5. Momentuan bertan laguntzarik behar ez badu, salaketa jarri nahi duen ala ez galdetu. Salaketa jarri nahi badu 112 telefonora hots egin.
6. Bortxaketa izan bada, azaldu behar diozu ez duela arropa aldatu behar edo bere burua garbitu behar; aho-bortxaketa izan bada, ez duela jan edo edan behar, erasotzailea identifikatzeko eta zigortzeko frogak desagertu daitezke-elako.

Ez badu salaketarik jarri nahi

7. Udaltzaingora, ospitalera edo osasun-zentrora jo behar badu, jakin behar du ofizioko salaketa izapidetu behar dutela.
8. Udaltzaingoaren telefonoa eskaini (636 458 016) zer zerbitzu eta baliabide dauden jakiteko.

Ez badaki salaketa jarri ala ez.

9. Esan ezin dituela frogak desagerrazi zer egin behar duen erabaki arte.
10. Udaltzaingoaren telefonoa eskaini (636 458 016) zer zerbitzu eta baliabide dauden jakinarazi diezaizoten.

maría eugenia
Arrainak

FESTA ONAK IZAN!!!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725
www.pescaderiamariaeugenia.com

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa *Ongi pasa festetan!*

24° takoa
28° takoa
35° takoa
3 litroko botilak

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikoetxea@yahoo.es

CITROËN JUMPY BERRIA EZER EZ DA EZINEZKOA

3 LUZERA: XS-M-XL NEURRIAK
1.90 METROKO ALTUERA* | ALBOETAKO ATEAK
ESKU LIBREKO IREKIERA IRRISTAKORRAK
MODUWORKEKIN** 4M BAINO GEHIAGOKO
KARGA LUZEERA

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËNEK nahigo TOTAL *Furgonerako aukera XS eta M neurrietan eta Combirako XS, M eta XL. **XL neurrian.
KONTSUMO MIXTOA (L/100km)/ CO2 ISURIA (G/KM): S, 1/5,6 - 133/148



CITROËN

Festa onak izan!

[f](https://www.facebook.com/citroen.es) [i](https://www.instagram.com/citroen.es) [y](https://www.youtube.com/citroen.es) [t](https://www.tiktok.com/citroen.es) [l](https://www.linkedin.com/citroen.es) [citroen.es](https://www.citroen.es)

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 90%	euria: 70%	euria: 40%	euria: 10%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 15%
Min: 12 Max: 16	Min: 11 Max: 16	Min: 10 Max: 17	Min: 10 Max: 19	Min: 11 Max: 21	Min: 11 Max: 20	Min: 11 Max: 20

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	35	10	13
Etxarri A.	33.5	6.6	5
Altsasu	32	9	11.8
Aralar	25	5.2	23.1
Urbasa	24.5	6.5	9.3

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
16	23	1	9

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

>> 11 galdera

Josetxo Crespo Zuret

Gurdi Bideko ibiltari sakandarra

Testua: Alfredo Alvaro eta Mainer Betelu



Sakanako gida

2017

BADATOR

GORDE ZURE LEKUA 948 564 275

1. Gurdi Bidea egiten ari zara zure behorarekin, ezta?
 Bai, Señera du izena nire behorrek. 7 urte ditu gutxi gorabehera. Behorrek zaindu behar dira eta bere lana ematen dute, baina une bikainak eskaintzen dizkizute.

2. Gurdi Bidearekin, San Juan baleontziaren errepika egiteko bikea eta alkitrana eramaten ari dira Quintanar de la Sierratik (Burgos) Pasaiara, garai batean bezala, gurdiz. Nola sartu zara abentura honetan?
 Betidanik gustuko izan ditut gurdi-abereak. Gurdi Bideko lehen etapan egon nintzen, Quintanar de la Sierra eta Burgos artean, Aste Santuan, eta konturatu nintzen Gurdi Bideak aurrerago Sakanatik egingo zuen tartea aukera ona zela nire behorarekin zeharkaldia egiteko.

3. Egitasmoa aurretik ezagutzen zenuen?
 Bai. Quintanar de la Sierrako Cabaña Real de Carreteros elkartekoek alkitrana eta bikea modu tradizionalan egiten dituzte eta gero gurdietan eramaten dute, lehengo gurdizainek edo orgazainek bezala. Aintzinako ofizio horiek ez galtzeko lan egiten dute. San Juan baleontziaren errepika egiten ari den Albaola elkartekoekin Quintanar de la Sierran egon nintzen aurretik. Boluntario bezala joan nintzen. Pare bat aldiz egon gara modu tradizionalan bikea egiten eta alkitrana egitearen prozesua ezagutzen eta gurdizainen eta bike egileen ofizio-

en historia ezagutzen. Nabarmen-tzekoa da Quintanarrekoek bikain hartu gintuztela. Jatekorik eta entretenimendurik ez zitzaigun falta izan.

4. Hortaz, Aste Santuan Gurdi Bidearen lehendabiziko etapa egin, gustatu zitzaizun eta orain beraiekin bat egin duzu...
 Bai. Aste Santuan Gurdi Bideko lehen etapa egin zuten, Quintanar de la Sierra eta Burgos artean eta bertan izan nintzen. Agorrilaren 31n ekin zioten atzera bidetari, Burgosetik Pasaiara iristeko, Albaolara. Larunbatean (bihar) iristekoak dira. Oporretako aste bat egun hauetan hartzeko gorde nuen, Gurdi Bidearen azken txanpa hau egiteko. Asmoa Andoainera iristea da. Ez dakit Aralartik buelta egingo dudan edo aurrera segi eta Pasaiara iritsikonaizen; ikusi behar.

5. Behorri zakutuak jarri dizkiozu eta berak darama zeharkaldirako behar duzuna...
 Bai, ibilbidea egiteko behar dudana sartu dut: sukaldatzeko gauzak, arropa, behorrendako pentsu eta olo pixkat...

6. Zu oinez zoaz.
 Bai. Cabaña Real de Carreteros elkartekoek garai bateko gurdizainen ofizioa nola zen birsortzen dute eta nire idea da garai bateko mandozainen ofizioa birsortzea edo erakustea. Behorrek lan batzuk eginak ditut aurretik, zuhaitz batzuk ateratzen eta beste ibiliak gara, baina

zeharkaldian zakutoak zeramatzala nola moldatzen zen probatu nahi nuen.

7. Eta nola erantzun du behorrek?
 Hasieran karga mugitu zaio, baina hobeto konpentsatu dut eta uste dut ongi goazela.

8. Aurretik zeharkaldi gehiago egin dituzu?
 Bai. Behorra izan aurretik astoak izan nituen eta Aralar eta Urbasa punta batetik bestera gurutzatu ditut.

9. Zeharkaldiak ongi planifikatu beharko dira. Otorduak egin behar dira, ura edan, atsedean hartu, lo egin...
 Animalien bazka lortzea ez da horren zaila, guztia ez baitago ustiatuta eta beti aurkitzen baitute zerbait jateko, ezponden artean edo dena delakoa. Dena den, badaezpada, beti sartzen dut olo edo pentsu pixkat. Garrantzitsua da ur puntuak ongi lotzea.

10. Zer moduz doa Gurdi Bideko bidaia?
 Primeran. Oinez joanda, atsedean hartuta eta ura edanez... bikain. Gurdizainekin eguneko 20 km-ko etapak egiten ari gara. Bina idi eta behi pare eramaten dituzte. Behorarekin akaso kilometro gehiago egin zitezkeen, gehiago estutuz, baina plazerreko bidea da hau.

11. Bidai ona izan dezazuela! Eskerrik asko!